

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2011ko irailaren 16a
302. zenbakia. 23. urtea



Zaila eta gogorra

Halakoxea da momentu honetan Orioko arraunlarien eta arraunzaleen egoera. Protagonista batzuekin jardun dugu solasean.

05

Herriko kontuak
Gazte festak badatoz

11

Aiako Berri
Gaztelekua martxan

19

Adarretatik helduta
Antonio Campos

25

Herritarra
Enara Alustiza

PUBLIZITATEA



ACTIVA Akobe
ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK
Juan Albizu
Abeslari 6 - Tel./Fax: 943 83 72-77
20800 ORIO

agirresarobe
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK ■
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK ■
FATXADEN ERABERRITZEAK ■
IGOGAILUEN PROIEKTUAK ■
GREMIO KOORDINAKUNTZA ■
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... ■

ITURRIBIDE 8, 5.BULEGOA, ZARAUTZ
SORJA AGIRRESAROBEN ARKITEKTOA 635 731722



Orioko Herri Ikastola
Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net



Sukalde eta bainuen erreformak
XANTI MUJIKA
Igeltseritza
699 46 76 21
943 13 10 37



zkue
Tf: 943 13 04 38

Allianz

Marigre Zaldúa
aseguru agentea

Ibai Ondo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 80
fax: 943 63 67 52
e-maila: zaldua.dolores.pa@allianz.es

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik agiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna eta merkea ☒

Tfnoa: 943 59 59 00



ARISTERRAZU
jatetxea
Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

Kinkladenda- Ume arropa

argine
www.lasone.com/argine
Tel. 943 13 48 89
25% DESKONTUA FAMILIA
UGARIEI TXARTELAREKIN

FISIOTERAPIA Gertakari Arrieta eta Natalia Wimmerer
NUTRIKONISTA Gertakari Arrieta

sinergia *investigacion fisioterapia*

Ibai ondo, 1. behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

ARISTERRAZU
jatetxea
Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidasak S.L.

Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.
Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01/ 656 78 29 99

Automóviles ZARAUTZ
OTROEN ZERBITZU ERREMATA
Ezagutu Gure Ona eta Gurea
ZARAUTZ. Tel. 943 13 13 30

ALTERRI
Kanta enberrituak
Antzburuan, eguerdi eta gauean,
menu bereziak
943 83 07 62



AIRDATZA modas
Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

HASI BERTSOTAN**IKER GURRUTXAGA** (DOINUA: SALTARINA DA TXEPETXA ETA)

Talde bat ez da kirola soilik

1

Uda bukatu ta elkarteak hasi taldeak osatzen, denboraldia hasi baino lehen arlo ezberdinak lantzen. Talde lanean saiatzen gera ondokoaz elikatzen, beste pertsonak ondo ulertzen ikasten da entrenatzen.

2

Entrenatzaile lana itea nola dudan nik gustuko *Hartuko al duk aurten talde bat* galdera entzun orduko, ezin ezetza sekula eman, nola egin horri uko? Hamaika urte badaramatzat eta ez naiz aspertuko.

3

Baina taldea egin behar da kantxa barru zein kanpoan, jokalarien *konplize* izan berek eskatutakoan, zure beharra baldin badute haiengana jo atoa, ta lagun onak izaten segi taldea utzitakoan.

4

Hamabost neska biribilean eta ni haien erdira. Kirol emaitzek nahiz ta agian ez duten egin dizdira urrea baino askozaz ere preziatugoak dira. Talde bezala beste guztiak horrelakoak balira...

302

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea,
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 83 15 27
karkara@karkara.com

EditoreaKarkara taldea
kultur elkarte**Zuzendaria**

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Irati Agirreazaldegi

Erredakzio taldeaPat Cowie,
Miren Etxeberria,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa
eta Jabier Zabaleta**Publizitatea**

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze

Testuen zuzenketaMiren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta**Ale honetako****laguntzaileak**Ander Beldarrain,
Antonio Campos,
Iñaki Iturain eta
Garbiñe Manterola**Diseinua**

Karkara taldea

BanatzzaileakCristina Burlacu eta
Iban Recio (Orio)
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.050 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



OLATZ LIZASO

PUBLIZITATE PREZIOAK**Iragarkia alero jarrita**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin
(695 78 07 20) edo
publizitatea@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK**EUSKO JAURLARITZA**

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

GUTUNAK

Mila esker bihotz-bihotzez

Uda hasieran jaso genuen sententzia. Oraindik ez da erabat bukatu amesgaiztoa; baina, hala ere, lerro hauen bidez, gure esker ona adierazi nahi dizuegu hasieratik ondoan izan zaituztegun guztioi; zuengandik jaso dugun berotasuna izugarria izan baita guretzat.

Asko izan zarete, era batera edo bestera, urte hauetan elkartasuna eta babesa eskaini diguzuenak: zuen hitz xamurrak eta adierazpenak, zuen begirada goxoak eta animoak... Epaiketa egunean gurekin egon zinetenoi ere, nola eskertu laguntzeko beti agertu duzuen prestutasuna. Une hura ere ez zen batere samurra izan inorentzat. Mila esker bihotz-bihotzez.

Eskerrik beroenak Jon Redondori (Orioko alkate izandakoa), Igor Ituraini (Aiako alkatea) eta Aintzane Ezenarrori (parlamentaria).

Sentimenduak osotasunean adierazteko hitzak motzak gelditzen badira ere, mila esker bihotz-bihotzez guztioi! ■

Blanca eta Maribel Bruño.

Aldaketa jasaten

Kostata, baina hasi da dagoeneko agindutako aldaketa udaletxean. Zoritxarrez, onerako izango ez delakoan gaude, berri txarrak baitatozkigu berriz ere. Herriarrek jakin beharko lukete, Udal berriarentzat interesatzen zaienean barrik direla lehentasun nagusikoak eta, Udal lidergoa herriari zabaldu ordez, Udaleko talde txikiaren esku dagoela: Oraineko sanedrina.

Sanedrin hitzak hainbat esanahi ditu:

1. Estatu eta erlijio gaien boterea duen juduen kontseilu goren.
2. Kontseilua biltzen zen lekua.
3. Ezkutuan utzi nahi den gairen bat tratatzeko batzar edo bilera.

Orainek erabakitzen du zein jarduera garatu behar diren. Gure postura eta diskurtsoa argiak dira, urteak daramatzagu garatzen. Aldiz, gobernu berriaren diskurtsoa eta proiektuak ez dauzkagu batere argi, baina gauza bakarra dakigu: Orainek nahi duena egingo dela.

Hain arrakastatsuak izan diren Txuletaren eta Erreboiloaren Egunak ez direla egingo jakin dugu, Oraineko ordezkariak hala erabakita. Egia esan, ez dakigu zein izan daitekeen oriotarrek, eta bereziki dendarri eta ostalariek, hain gustuko duten festa kentzeko arrazoi errealak, baina bi aipa genitzake: alde batetik, ekintza horiek kosturik gabe kudeatzeko gaitasun falta eta, bestetik, ekintza horiek arrakastatsuak izan daitezen

Gutunerako oharak

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko ize-nik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

egin behar den lan handia.

Aipatutako ekintzak ez ospatzearen erabakia Orainek hauteskunde kanpian esandakoaren guztiz kontrakoa da: *Orainek oinarria oriotarren partaidetza da. Ez dugu taldea –sanedrina– sortu agintzeko, herriaren zerbitzura ipintzeko baizik. Horretarako, zuen kezkak, iritziak eta partaidetza gogoia jakin nahi ditugu.*

Sanedrineko partaideek oriotarren partaidetza eta iritzia kontuan hartu al dituzte Txuletaren eta Erreboiloaren festa kentzea erabakitzerakoan? Hartu duten erabakiarekin, oriotarren zerbitzura daude ala agintzen ari dira? Eskerrik sanedrin horretan dendarri eta ostalarien ordezkariak zeuden.

Herriarrei protagonismoa eman behar zaiela pentsatzen dugunok asko gara –sanedrinean 21 bai, momentuz– eta horregatik batu gara. Denetarik dago gure artean, baina helburua argia da: Orion egiten dena, Orion erabaki behar da, beti ere, oriotarren iritzia aintzat hartu ondoren.

Sanedrineko kideek eman al diote hitza herriari ala zerbait utzi nahi dute ezkutuan? Oriotarren iritzia kontuan hartu al dute? Oriotarrek Orain hobeto eza-gutu dezaten, *asko gara eta denetarikoa gara* moduko hitzak argitzen hasteko garaia iritsi da.

Hasteko, lan talde bat sortu dugu: lan talde horretatik hauteskundeetarako hautagaiak hautatu ditugu, baina erabakiak lan taldeak hartuko ditu. Horrela, taldeak izango du indarra eta taldea irekia denez, edonork parte hartu ahal izango du erabaki horietan.

Gaur arte hartutako erabakiek argi utzi digute taldeak agintzen duela, eta ez duela partaidetza bultzatzen ezta herriaren iritzia kontuan hartzen ere. Gertatutakoa ikusita, talde horren intentzioei buruzko duda handiak ditugu: hartutako erabakiak oriotarren nahien kontrakoak dira. Talde horren ekintza *apolitikoek* herriarrek demokratikoki hautatutako taldea udal gobernutik kanpo utzi dute. Eta horrelako prozedura eta ekintza *apolitikoek* zoritxarrez jarraitu egingo dute, talde horrek Udal gobernuan agintzen jarraitzen duen bitartean. ■ **Orioko EAJ**

Txakurrak pozoituta

Hilabete gutxiren bueltan bi txakur hil zaizkigu etxean; azkena, aurreko astean. Biak, albaitariak esan digunez, pozoituta. Klean pozoitu dira bi txakurrak, ohiko lekuetatik paseatzen genbiltzala.

Galdetzerajoanda, udaltzaingoa esan digute norbaitek haragi-bola pozoituak utzi izan dituela herriko berdeguneetan eta ez dakitela nor den. Hala ere, juxtu azken txakurra hil aurreko egunetan herbizidak bota zituzten Anibarko Portuko pasealekuan, inori abisatu gabe, eta, bestalde, arratoien kontrako pozoia ere sarri ikusten dugu bidebakter eta harraldeetan. Produktu horiek oso toxikoak dira txakurrentzat eta, baita ere, haurrentzat.

Oso minduta gaude kontu honekin. Ez zaigu normala iruditzen herrian txakurra paseatzera ateratzeko beldurrez egon beharra. Udalarri eskatzen diogu kontu hau serio hartzea, arazoa ondo aztertuta eta irtenbideak ematea.

Badakigu ez garelako bakarrak arazo hori izan dugunak eta, norbaitek harremanetan jarri nahi badu gurekin, elkarrekin zerbait egiteko, edota jakiteko zenbat izan diren pozoitutako txakurrak, deitu dezala gure etxera, 943 83 59 37 telefonora.

■ **Javier Urretabizkaia.**



Baltsa-lasterketa urtetik urtera arrakasta handiagoa lortzen ari da. KARKARA

Gazte festetarako entsaioa egingo dute asteburu honetan

Irailaren 23an, 24an eta 25ean izango dira 2011ko Gazte festak eta, beti bezala, ekitaldiz gainezka dator egitaraua, gaztetxean egin dituzten hainbat asanbladatan erabaki eta gero.

Gazte festen antolakuntza ez da batere lan erraza izaten, baina, beste behin, herriko gazteek egitasmo oparoa kaleratu dute iraileko azken astebururako. Horretarako laguntzaile izan dituzte Etxeluzeko gaztetxeak, Orioko Udala, Talai Mendi, Baraka, Koasta, Tragoxka, Kolon Txiki, Errusta, Kalakari eta Aterpe tabernak; Txanka Erreka hotela eta Itxaspe nekazalturismoa.

Horretaz gain, berezitasun bezala, *Gazte festen entsaioa* antolatu dute Etxeluzeko gaztetxeak, irailaren 16rako eta

17rako. Ostiralean, hilaren 16an, gaueko 22:30ean hasita, koktel-gaua eta reggae kontzertua izango dira eta, hurrengo egunean, goizetik hasita programa zabal antolatu dute: Goizean *girokeriak* izango dira –esketzak, txirigotak...– eta baltsak prestatzeko aukera ere izango da. Atzetik, bazkari xume bat egin eta kafe-solasaldia izango dute, eta gazteei eragiten dieten gaien inguruan hitz egiteko aprobetxatuko dute. Gauerako bi talde arituko dira Etxeluzeko eszenatokian. *Louis Michael* talde euskalduna

izango da, batetik, eta Pragatik –Txekiar Errepublika– etorritako *Michael's Uncle*, bestetik.

Gazte festen egitaraua

Gazte festetako egitaraua urterokoaren antzekoa izango da. Piraten danborrada-ko entseguak dagoenerako hasita daude, hilaren 13an eta 15ean egin zituzten lehen jardunak eta 20an eta 22an egingo dituzte hurrengoak.

Antolakuntzakoek parte hartzeko deia luzatu die herriko gazte guztiei, batez ere berak protagonista izango diren ekintzetan

Antolakuntzakoek parte hartzeko deia luzatu die herriko gazte guztiei, batez ere berak protagonista izango diren ekintzetan: paella lehiaketan, baltsa-lasterketan eta *girokerietan*. Iaz baltsa-lasterketan orain arteko ontzigezien uretaratu ziren eta aurtan ere berdina izatea nahi dute.

Dena dela, aurtan berezitasun bat izango dute Gazte festek. Herriko plazan eta gaztetxean egingo dituzte kontzertuak larunbat gauean. Horrela, festa plazan bakarrik kokatu beharrean, gehiago zabaltzeko asmoa agertu dute antolakuntzan ibili diren koadrilek.

Festak autogestionatuak izaten jarraituko dute urtero bezala, eta urtean zehar gaztetxean eta handik kanpo egindako ekimenetan lortutako diruarekin ordainduko dute aurrekontua.

GAZTE FESTETAKO PROGRAMA

Irailak 23, ostirala

21:30 Piraten tanborrada kalez kale

23:30 Kontzertuak plazan: *Adabegi* eta *Mikel Hats*

Irailak 24, larunbata

12:00 Paella txapelketaren hasiera.

14:00 Paellen aurkezpenean eta bazkaria

Bukatzean *Girokeriak* tabernaz taberna poteatu bitartean

23:00 Kontzertuak plazan: *Can't explain*, *Karrocerias Betoño* eta *AZ/DZ*

03:00 Kontzertuak gaztetxean: *Humilitate* eta *Arrautz Ustelak*

Ondoren Karaokea gaztetxean bertan

Irailak 25, igandea

07:00 Diana herriko gazte txarangarekin.

16:30 Baltsa-lasterketa gaztetxetik Herriko plazara

19:00 Kontzertua plazan: *Brak*

ORIOKO KONTUAK



Uztailaren hasieratik abuztuaren amaierara bitartean izan da martxan txu-txu trenak. KARKARA

Stock azokan eta txu-txu trenean iaz baino jende gutxiago ibili da

Herriko merkatariek udako beren jarduerarik garrantzitsuenen balorazioa egin zuten merkataritzako zinegotziarekin. Hilero bilera egitea ere erabaki dute.

Herriko merkatariek bilera egin zuten irailaren 6an Miriam Uranga merkataritza zinegotziarekin. Aurrerantzean egingo dituzten bileren ataria izan zen batzarra, hemendik aurrera hilaren lehen astearteetan, 14:30ean elkartuko baitira zinegotziak azpibatzaileak eraman beharreko merkataritzako gaiak gertutik ezagutzen dituztenekin lantzeko. Lehen batzarrean stock azokaren eta txu-txu trenaren balorazioek hartu zuten tokia.

Abuztuaren azken asteburuan izan zen stock azokan Arkupe elkarteko 20 dendak hartu zuten parte eta, horietaz gain, Kilometroak festako arroparekin mahaia, eta *lapurtutako haurren* kasuaren inguruko informazio mahaia izan ziren. Globo, talo eta sardina saltzaileak ere han izan ziren. Iaz baino jende gutxiago ibili zela eta hori salmentetan igarri zutela esan zuten merkatariek eta taloak eta sardinak ere gutxiago saldu ziren. Giroari buruz, ordea, iritziak onak

izan ziren, besteak beste puzgarriak eta musika toki egokian egon zirelako.

Hala ere, datorren urtekoari buruz ere hitz egin zuten eta hainbat proposamen entzun ziren bileran: sardinak prestatzearen ardura herriko talde bati ematea, azoka Ibai Ondora edo Herriko plaza ingurura aldatzea, karteletan euskara zaintzea... Horiek denak landu egin behar dira ordurako.

Eguraldiaren eragina

Txu-txu trenerako, eguraldiak eraginda, txartel gutxiago saldu dela esan zuten, eta galerak izan arren harrera ona duela. Aurrera begira hainbat aholku aurkeztu zituen gidariak: plazan, istripuak saihesteko, geltokian aldaketak egitea; hondartzako geltokia egokitzea eta txartelak saltzeko toki gehiago jartzea; zerbitzua Anibarko portura luzatzea... Trena erosteko eta udan ez ezik urtean barrena beste erabilera batzuk emateko aukera ere mahai gainean jarri zuten.

LABUR

Bertsolaritza

Basarri saria Gurrutxagarentzat
Iñaki Gurrutxagak jantzi du Basarri bertso paper lehiaketako txapela *Pre-papá-tuta nago* bertso sortarekin. Bigarren saria Nikolas Zendoia aiarrarentzat izan zen, *Mari Joxepa eta frailea* lanagatik. Bestalde, irailaren 18an hasiko dute oriotarrek Gipuzkoako txapelketan final zortzirenetako jarduna. Igandean, Azkoitiko Baztartxo zineman arituko dira Ibai Esoain eta Xabier Sukia. Iñaki Gurrutxagak Eibarko Coliseoan kantatuko du irailaren 24an eta Egoitz Eizagirrek Elgoibarko Herriko Antzokian urriaren 1ean. Saioak 17:30ean izango dira.

Literatura

‘Euskaraz Gazte’ lehiaketa abian
Irailaren 30a da 16 urtetik gorako oriotarrek eta aiarrek *Euskaraz Gazte* literatur lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna. Lehiaketan parte hartzeko ipuinak aurkeztu daitezke batetik, eta bertso edo olerkiak, bestetik. Lan guztiak euskaraz idatziak izan behar dute, izan ere, Orion eta Aian euskaraz idazteko zaletasuna suspertzea da lehiaketaren helburua.

Irteerak

Jubilatuak Bizkaira

Urriaren 31n, Zaharren Babeslekuak antolatuta, irteera izango da Bizkaira. Urriko azken asteleheneko azoka sonatuan ibiliko dira goizez Gernikan. Bazkaria egingo dute gero Mundakako Casino jabetxean eta Bermeo eta Lekeitio bisitatu dituzte gero. Txartelak 35 euroren truke eskuratu ahal izango dira urriaren 4an 16:00etatik 18:00etara bitartean Zaharren Babeslekuan. Antolatzaileek jakinarazi dute bigarren autobusa antolatzeko gehienez 30 lagun behar direla eta, ez badira osatzen, zozketa egingo dutela.

Arraunlariak animatzera

Asteburuan *play-offa* jokatu du Mirotzak Bermeon eta Portugaleten. Herriko traineruaren etorkizuna jokoan dagoela jakinda, Orioko Udalak autobusak antolatu ditu arraunlariak animatzera joateko. Ostiral iluntzeko zortziak baino lehen eman behar da izena Zaharren Babeslekua, Kolon Txiki, Loretxu, Salatxo edo Sarasua tabernetan. Izena ematerakoan bost euro ordaindu behar dira. Larunbatean 15:00etan eta igandean 09:00etan aterako dira autobus geltokitik eta estropada bukatuta itzuliko da Oriora.

Elizan Itxaspeko harria erabiliko dute aldarerako eta lurrerako

Berritze lanak gutxienez azaroaren hasierara arte luzatuko direla jakinarazi du apaizak. Koruko lanak datorren urtera arte ez dituzte egingo, orduan ekarriko baitute organoa konponduta

San Nikolas elizako obrak aurrera doaz eta, apaizaren esanetan, gutxienez, azaroaren hasierara arte arituko dira langileak eliza berritzeko zereginetan.

Korua baino beheraxeagoko horman, elizaren jatorrizko lau leiho zabaldu dituzte jadanik eta lanak egiten ari zirela koruan, goiko partean, arkudun bi leiho agertu dira. Gangak itsusituak zeuden teilatua egin aurretik sartutako hezetasunaren ondorioz, eta hormek ere bazuten garbitzeko premia, hortaz, presiopeko airez garbituta eta margotuta daude dagoeneko. Argiztapena hobetzeko lanak ere amaitzeaz daude. Elizak bi argiztapen mota eskatzen dituela esan digu apaizak, *otoitzerako egokia bat eta beste bat eliza artelan gisa ikusteko; baliteke hasieran ilunago dagoela iruditzea, baina hori da zeharkako argiztapena delako*. Sarrerako ateak ere pintura marroiz margotuta zeuden, hortaz, margoa kendu eta egur kolorekoak izango dira aurrerantzean ateok.

Horiek guztiak eginda, lurra konponitzeko lanekin hasiak dira. Lur berria jarri behar dute elizan, zati batzuetan egurrezkoa eta harrizkoa besteetan, izan ere, *desgaste handia du eta hori arrisku-tsua da, batik bat, adineko jendearentzat*. Horretarako, Itxaspeko harkaitz handi batzuk erabiliz atera duten harria erabiliko dutela jakinarazi du Unai Manterolak. *Eliza egin zenean, orain dela 400 bat urte, Orioko harria erabili bazuten, nola erabili guk orain kanpotik ekarritako harri berria? Bertakoa nahi genuen berriz ere... esan du apaizak*.

Aldareko harkaitz sendoa

Lurrerako ez ezik aldareko mahairako ere erabiliko dute Itxaspeko harria, 4.000 kilo inguruko harria, hain zuzen ere. Aldareko mahai hori harkaitz sendo bat izatearen zentzua ere azaldu du apaizak: *Kristauontzat mahai hori Kristoren ezaugarri da eta guretzat Kristo da gure oinarri, gure harkaitz. Aldi berean, mahai horrek gure bizitza ere irudikatzen du. Horregatik ez dago landua, baizik eta kolpeak eta moztearen ondorioz gelditu zaizkion markak ditu. Gure bizitza ere ez baita zuzena eta laua, eguneroko zailtasunen eta kolpeen bidez eratzen dena baizik*.



Aldarea izango den lau tonako harria ekarri zuten asteartean elizako atarira. KARKARA

Itxaspeko harriok Etxaizberri base-rrian dagoen harginak prestatu ditu, bai aldareko mahaia egiteko eta baita lurreko harlausak egiteko ere.

Aurreikusitako konponketetan apenas izan da aldaketarik. Zimitario alderako ate txikian bi eskaileraren orde al-dapatxoa egin dute sarbidea errazteko.

Desgastea duenez, erortzeko arriskua saihesteko, lur berria jarri behar dute elizan, egurrezkoa zati batzuetan eta harrizkoa besteetan

Korua aurrerago

Eliza zahar berritzeko lanetan koruak izango du garrantzirik handiena, besteak beste, eskailerek bertan edozein erortzeko arriskua dutelako. *Garai batean korua handitu zuten, orduan zenbat eta jende gehiago izan hobetaz hartzen baitzen, baina orain ez da komeni jende gehiegi egotea. Pinuz egindako korua da, sitsak janda dagoena eta horrek organoari ere eragin dio*.

Korua berritzeko lanek itxaron egin beharko dute, ordea. Izan ere, koruko lanekin hasi aurretik organoa ekarri behar da eta hori ez dute datorren urtera arte izango. Organoa berritzeko hainbat pauso emango dituzte: *Organoa dena eraberritu, txukundu, organoaren piezak bereak eta aurrekoarenak aprobetxatuz eta gauza batzuk berrituz, handiagoa eta hobe jarriko dugu. Organoak gaur arte iraun badu, organo jotzaileen mimoren esker izan da, organistek jotzeko ez ezik hura konpontzeko ere esku ona izan dutelako*, adierazi du apaizak.

Bien bitartean koruko eskailerak nola konponduko dituzten erabaki dute: *Egitura bera mantenduko dugun arren, indartu eta maila berriak jarriko ditugu*.

Hortaz, uztailetik hona bezala, elizako oraingo obrek iraun bitartean parrokiak itxita egongo dela kontuan hartuta, astegunetako elizkizunak parrokiako saloian egiten jarraituko dute; asteburuetako mezak, hileta elizkizunak eta jai egun berezietakoak, berriz, Ikastolako eraikin berriko areto nagusian izango dira.

KIROLA



Finalean Segurola eta Albizuri azpeitiarrek eraman zuten txapela etxera. KARKARA

Arrakasta handia izan du udako frontenis txapelketak

Bikote askok hartu dute parte, tartean kanpotik etorritako jokalariez osatutakoak eta, oro har, maila altua izan dela nabarmendu dute antolatzaileek.

Irailaren 2an, ostiralarekin, jokatu ziren Orioko frontenis txapelketako finalak. Uztailean ekin zitzaion txapelketari eta antolakuntza lanetan Orioko Gaztetxea eta Pilota Elkartea, elkarlanean lehen aldiz, aritu dira.

21 bikote aritu ziren txapelketan eta, antolatzaileen esanetan, maila oneko partidak jokatu dira, batez ere, final laurdenetatik aurrera. Bikoteen artean, gainera, Azpeitiatik etorritako bat eta Andoaindik etorritako beste bat zeuden.

Finalak

Hirugarren eta laugarren posturako lehia izan zen jokatu zen lehena. Bi bikoteak, lehenengo fase aparta jokatu, finalerdiak arte eroso aritu ziren. Urdinez Urangak eta Itxasok jokatu zuten eta Gorritz Arrutik eta Galarragak.

Partida estua izan zen orokorrean, huts nabarmenak ez ziren gehiegi izan eta joko alaia nagusi izan zen norgehiagokak iraun zuen denboran.

Aurreko koadroetan zertzelada politak utzi zituzten bai Urangak eta baita Arrutik ere. Gorriak nagusitu ziren 30-25. Behin hori bukatuta finala hasi zen.

Faborito garbiak ziren Albizuri eta Segurola azpeitarrek gorritz jokatu zuten lehia, eta Lertxundi eta Lizarralde oriotarrek urdinez.

Albizuri eta Segurolak maila bikaina erakutsi zuten txapelketa guztian, esperientzia handiko bikotea baita, besteak beste Berrobiko txapelketan hartu izan dute parte. Eta lehen instantetik argi utzi zuten txapelaren bila zihoazela. Partida kontrolpean izan zuten eta ordubeteko iraupena jokoaren parte bihurtzen jakin zuten ondo baino hobeto. Txapela eta zirkuitu termal eta bazkaritarako txartela lortu zituzten 30-17 irabazita. Partidak bukatuta, Sarasua-enean izan ziren afaltzen finalistak eta antolatzaileak.

Txapelketan banatutako sariak Udalak eta Gaztetxeak bien artean jarritakoak izan ziren.

LABUR

Arrauna

Edorta de Anta paralinpiar

Orio Arraunketa Elkartean ari den Edorta de Anta tolosarrak 2012an Londresen jokatu diren Paralinpiar Jokoetarako txartela lortu du Esloveniako Munduko Txapelketan. Arraunketa egokitu, skiffean aritu zen De Anta eta, final erdientarako aukera ozta-ozta lortu ondoren, finalerako txartela ere ehunenekoengatik eskuratu zuen. Finalean, berriz, seigarren sailkatu zen eta, han izatearekin batera, beste helburu nagusia ere lortu zuen: Paralinpiar Jokoetarako txartela. Munduko Txapelketan, Juan Angel Garmendia *Xarpas* izan du laguntzaile.

Futbola

Aurrendenboraldia eta liga hasiera

Aurrendenboraldian emaitza txukunak lortu ditu Jaime Coladok entrenatzen duen Gipuzkoako Gorengo mailako mutilen taldeak. Denboraldia hilaren 10ean hasi zuen taldeak, etxean; arerioek izandako hiru aukeratatik bi sartu zituzten eta 1-2 bukatu zen partida. Aurten guztira 6 talde izango ditu Orioko Futbol Taldeak, horietatik 2 neskenak.

Saskibaloia

Alustiza autobusak 2. mailara

lazko denboraldiaren ostean, Gipuzkoako 3. mailan arituko zirela uste bazuten ere, 2. mailan jokatu du Orioko saskibaloit taldeak. Gauzak horrela, 5 saskibaloit talde izango ditugu Orion datorren denboraldian. Hiru talde neskenak izango dira -1. urteko infantilak, 2. urteko infantilak eta kadeteak- eta bi mutilenak -2. urteko infantilena eta seniorrena-. Lanean hasi dira dagoeneko eta seniorrek denboraldiari hilaren 24an ekingo diote Pasai Donibanen. Aurretik, irailaren 16an, iluntzeko 20:00etan Donosti Dolphinsen aurkako lagunartekoa jokatu dute Orion.

Areto futbola

Talderik ez datorren denboraldian

lazko denboraldian maila galdu ostean, aurten talderik ez du izango Orioko Tabernak areto futboleko elkartea. Hainbat urtetan lanean gogor jardun ondoren, aurrera egiteko indarrak gabe geratu dira Alberto Casado eta inguruko lan taldea. Gauzak horrela, urte askotako ibilbidean etena izango du baloi txikiaren kirolak Orion. Zarautz aldera joan dira jokalaria batzuk hemen talderik gabe gelditu direnean.

“Horrelako probetan aritzen garenok burugogorrak eta konstanteak gara”

Leire Iruretagoiena

Mendi lasterketetako korrikalaria

Orion bizi den tolosarra. Mendia eta kirola beti izan ditu gustuko eta orain, biak uztartuz, distantzia luzeko mendi lasterketetan hartzen du parte. Ehun Miliak (166 kilometro) proban bigarren izan zen emakumeetan eta zazpigarren sailkapen orokorrean.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Hiru Handiak proba egiteak errespetua eman zion hasieran eta jendeak Ehun Miliak lasterketa egitea erokeria iruditu zitzaion, baina probak egin ahala ohartu zen *gorputzari astindu handia eman arren, ez dela jendeak kanpotik uste duen besteko astakeria* eta bera ere mendi lasterketen zurrumbilo horretan sartu da.

Noiztik ari zara mendi lasterketetan?

Gehienek mendi lasterketak distantzia laburreko proba azkarrekin lotzen dituzte, baina ni luzeagoetan aritzen naiz. Iaz hasi nintzen Hiru Handiak proban eta hor ezagutu nuen mundu hori. Ongi moldatzen garen jendea elkartu gara proba horietan eta lagun taldea osatu dugu.

Aurten Ehun Miliak lasterketako helmugan bigarren emakumea izan zara.

Bai, baina 2. emakumea izateak baino gehiago poztu nau sailkapen orokorrean 7. izateak. Guztira sei proba egin ditut eta hau izan da luzeena eta desnibel gehien duena, baina ez horregatik gogorrena. Ordu asko pasa genituen bakarririk, baina askotan entrenatzen denbora gehiago pasatzen dugu horrela. Probaren gogortasuna egoera fisikoak, eguraldiak... baldintzatzen dute.

Nola prestatzen dituzu lasterketak?

Kalitatea, desnibela edo abiadura landu aurretik, bide luzean korrika aritzeko gorputza ohitu behar da hainbeste kilometro egitera. Asteburuetan entrenatzen dugu eta, aste guztiko nekearen ondoren, goiz jaiki eta ordu mordoan mendian korrika pasatzeko motibazio bat aurkitu behar da. Taldean, entrenamenduak egunpasa moduan hartzen ditugu eta, sakrifikatua bada ere, taldean dagoen giroak betetzen nau. Gogorragoa da neguan, eguraldi txarrekin, ilunpetan entrenatu beharra. Orion, gainera, dena



ALZURI

da ordeka, beraz, entrenatzeko ez da hain egokia.

Eta prestaketa psikologikoa behar da?

Proba horietan buruak garrantzia handia du, baina ez naiz modu berezian prestatzen ari. Horrelakoetan aritzen garenok nahiko burugogorrak edo konstanteak gara eta proban bertan beherakada izanez gero, horri buelta ematen asmatu beharra dago. Ehun Miliak proban nik 29 ordu pasa nituen, baina izan zen 44 ordu behar izan zituenik; beraz, kontuan hartuta egun normal batean, zenbat gorabehera izaten ditugun, pentsa lasterketetan zenbat gauza pasa daitezkeen burutik.

Lehia handia al dago zuen artean?

Badago lehia, batez ere norbere buruarekin, denoi gustatzen baitzaigu aurrekoa hobetzea, baina gure artean ez gara hain lehiakorrak. Egunsentia delako eta paisaiari begira edo norbaiti laguntzen bi minutu galdu behar izanez gero ez zaigu hainbeste axola.

“Distantzia luzeetan aritzeko gorputza ohitu behar da hainbeste kilometro egitera kalitatea, desnibela edo abiadura landu aurretik”

“Probetan ez gara hain lehiakorrak, lehia, norbere buruarekin izaten dugu, aurreko proban egindakoa hobetu nahi baitugu”

Aurrerantzean zein lasterketa egingo dituzun erabaki al duzu?

Distantzia luzekoak martxotik urrira bitartean izaten dira. Gainera, antolatzaileek kontuan hartzen dute ilargi betea noiz den, gauzez ere izaten direlako probak. Probak ez dira oso maiz izaten. 100 kilometrotik gorakoak bi hilabete behin egiten ditut nik. Irailean proba laburrago bat egin nahi dut Katalunian, Pirinioetan, eta datorren urterako egutegia begiratz hasi naiz zein aukeratu pentsatzen, hala ere, oraindik hainbat zehaztu gabe daude. Andorran egingo dut bat, Mont Blanc-ekoa ere bizitzan behin egin behar da eta gustatuko litzaidake joatea. Beste irlaren batean lasterketaren bat egitea ere nahi dut berri. Proba asko daude eta egindakoak errepikatzea baino nahiago dut berriak ezagutzea.

Aiako berri



KARKARA

“Aiara itzulita, nire auzo euskaldunera bueltatu naizen sentsazioa dut”

Mina Boucha

Sukaldaria

Aiako igerilekuan elkartu gara Minarekin, azken urteetan Aian izan duen lanpostura itzuli baita udarako, sukaldari eta zerbitzari gisa aritzeko. Murtzian utzi du senarra, lanean bera ere, baina neguan Beni Mellalera (Maroko) itzultzeko asmoa dute, iaz ezkondu ziren arren, ezkontza-festa ospatu gabe dute-eta.

PAT COWIE

Ingelesezt aritu gara elkarrizketan, ikaslea izandakoa baita Mina.

22 urterekin alde egin zenuen Marokotik. Zergatik?

Ikasketak bukatu ondoren pare bat urte pasa nituen etxean, baina ez nengoen gustura. Zerbait egin nahi nuen, ez nuen jarraitu nahi gurasoen bizimoduarekin, mundua ikusi nahi nuen... Anaia nuen Alemanian eta berarengana jo nuen, gidatuko ninduelakoan eta, azkenean, Aiara etorri nintzen hemen beste anaia

lanean ari zelako eta hiru urte pasa nituen bertan paperak ondo jarri bitartean. Artean, etxeetan eta igerilekuan lan egin nuen. Dokumentazioa ondo izan bitartean, ezin da Marokora bueltatu ezta hemen bidaiarik egin ere, kanporatze mehatxua hurbil egoten baita beti.

Ikasi ere egiten zenuen.

Bai, iritsi nintzen banekien arabieraz, berberezt, frantsesezt eta ingelesezt hitz egiten, eta hemen eskolak hartu nituen gaztelania eta euskara ikasteko eta ingelesa hobetzeko. Baina garrantzitsuena, ordea, lanean ikasi nuen: nire

barruko beldurak gainditzen. Oso lotsatia nintzen, baina igerilekuan, batez ere, ikasi dut jendaurrean lan egiten eta asko lagundu dit.

“Dokumentuak ondo jarri bitartean, hiru urtean, kanporatze mehatxua hurbil egoten da beti.”

“Nire etorkizuna? Hiri handian ez: natura behar dut, arbolak, etxean neukan bezala... Eta beste zerbait ikasi nahi dut, gero lana lortzeko.”

Gustura bizi zinen Aian?

Hasieran gogorra izaten zen gu baikinena aurreneko *zapidunak*. Arraro begiratzaren ninduten, ez nintzen eroso sentitzen. Gero, konfiantza pixka bat sortu zenean, denak galdera bera egiten zidaten: zergatik janzten nuen. Aspertuta nengoen gai horrekin. Niretzat inportantea delako janzten dut, nire sinesmenak direla-eta, garrantzi handia du niretzat. Hemengo mojek ere buruki bereziak janzten dituzte, ezta? Ba, nik *hijaba* eramatea aukeratu dut. Gainera, Europako estiloko jantziak ere eramaten ditugu, beraz, zibilizazioaren martxa islatzen dute nire janzkerak eta nire erlijioak, biak bat eginda.

Hala ere, egia da zapiagatik askoz ere zailagoa dela lana aurkitzea, kristauen eta musulmanen ez ulertzearen ondoriozt, are gehiago Euskal Herritik kanpo. **Zer sentitu duzu aurten Aiara bueltatu zarenean?**

Alde batetik, gustura, lana neukalako hemen, diru pixka bat aurrezteko aukera. Bestalde, nolabait etxeratzen ari nintzela nire auzo euskaldunera. Jende asko ezagutzen dut, ezagutzen naute. Akaso, datorren urtean ere etorriko naiz, orduan dokumentazioa berriro beharko dut eta. Egia esan, ia planik gabe bizi naiz. Baina gustukoa dut aldatzea, beste lekuak eta jendeak ezagutzea. Momentuz, senarrak han duelako lana, Murtzian dugu oraingo bizilekua.

Eskoletan esaten zenigun erreka ondo-ko eta berdez inguratutako etxebatean bizitzea zenuela amets.

Nekazari inguruan bizi izan naiz beti, Europara etorri arte. Beraz, Aia egokia zen niretzat. Ezin ditut hiri handiak jasane, natura behar dut, arbolak, etxean neukan bezala, espazioa, uraren mugimendua... Baina amets ez dena gehitu nahi nuke: beste zerbait ikasi nahi dut, gero lana lortzeko.



Herriko sarrerako biribilgune berriaren ondoan dago gaztelekua. ENEKO SANZ

Aste bukaera honetan irekiko dute Gaztelekua herriko nerabeentzat

Oraingo, larunbat eta igande arratsaldeetan egongo da zabalik Armendigaineko biribilgunearen ondoko eraikineko Gaztelekua, 12 eta 18 urte bitarteko gazteentzat aisialdirako gunea.

Uda aurretik herriko gazteekin bilerak egin ondoren, asteburu honetan irekiko ditu ateak Armendigaineko Gaztelekuak. Asteburuan zabaldu arren, irailean inaugurazio ekitaldi bat egitekoak dira, data zehaztu gabe badago ere.

12 eta 18 urte bitarteko nerabeentzat izango da Gaztelekua eta aste bukaeretan egongo da irekita, arratsalde, 16:00etatik 20:00etara. Hala ere, baliteke, martxa hartu ahala, eta gazteen nahiei erantzunez, hasierako ordutegia moldatzea.

Gazteekin aurretik egindako bilere-tan, gutxi gorabehera, 20 lagun izan direla jakinarazi digu begirale lanetan arituko den Eneko Sanzek. Berak esan digu: *ateak edozein gazte izango ditu irekita hemendik aurrera eta gonbita egin nahi nieke etortzeko, bertatik bertara ikusteko zer den, eta gero berekerabaki dezaten aurrerantzean etorri ala ez.* Azken finean, gaztelekua herriko nerabeentzako erreferentzia puntua izatea da nahi dutena.

Gaztelekuaren nondik norakoez galdetuta, esan digu ohiko edozein gazteleku bezalakoa izango dela, hau da, lagunekin gustura egoteko, jendea ezagutzeko, hainbat jardueratan parte hartzeko edo nork bere ekimenak aurrera ateratzeko lekua. Eneko Sanzen iritziz, aisialdia aprobetxatzeko tresna izan behar du.

Gazteen araberako ekintzak

Lokala berria da eta herriak eta gazteek eskainitako baliabideak erabiliko dituzte Gaztelekuan eta *gazteek berek erabakiko dute nola antolatu nahi duten eta baita zein jarduera egin nahi dituzten ere*, dio begiraleak.

Udako etenaren ondoren, berriz ekingo diote asteburu honetatik aurrera gazteek lokal berrian elkartzeari; beraz, begiraleak esan nahi die partehartzea ezinbestekoa dela, batik bat haien gustuko ekintzak antolatzeko orduan zer nahi duten jakiteko eta, hortaz, zain izango di-tuela bertan.

LABUR

Festak

Laurgaingo San Migel jaiak

Irailaren 29an San Migel Eguna denez, festak izango dituzte aste bukaera horretan Laurgain auzoan. Ostegunean, hila-ren 29an, 11:00etan meza izango da eta, ondoren, hamaiketako, herri kirolak eta trikitilariak. Ostiralerako herri afaria antolatu dute eta, horretarako, irailaren 28a baino lehen izena eman behar da Aiako Iturriotzena tabernan. Afalostea lzer eta Alabier trikitilariak giro-tuko dute. Azkenik, larunbatean, mus txapelketa izango da 16:00etan eta bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko. Gauean, berriz, dantzarako aukera izango da Ostolaza eta Andonegi trikitilariekin erromerian.

Trikitixa

Beldarrain Zarautzen txapeldun

Ander Beldarrain trikitilari aiarrak, Zestoako Eider Iraola panderoan lagun duela, Zarauzko E uskal Jailetako trikitilari gazteen txapelketa irabazi du. Ez da hau izan, ordea, udan lortu duen sari bakarra. Izan ere, txapelketa askotan hartu du parte eta, horietan, bigarren izan da Andatza auzoan bizi den soinujolea.

Lehiaketa

Argazkiak aurkezteko epea

Irailaren 30a izango da Aiako Udalak antolatutako argazki lehiaketara lanak aurkezteko azken eguna. Aurtengorako aukeratutako gaia *Aiako txokoak* da eta parte hartzaile bakoitzak lau argazki aurkez ditzake gehienez, koloretan zein zuri-beltzean, baina horizontalak. Paperean, 20x30 zentimetroko neurrian eta, digitala izanez gero, CD batean ere, Aiako kultur etxera eraman behar dira. Sariak 180, 150 eta 100 eurokoak izango dira hurrenez hurren, hiru aiarrentzat eta hiru kanpotarrentzat.

Kirola

Korrika saioak emakumeentzat

Korrika egiteko emakume talde bat elkartzen da astero Aian. Aitor Hoyosen laguntzarekin egiten dituzten korrika saioak bakoitzak lortu nahi dituen helburuen araberakoak dira eta hori lortzea izan ohi da asmoa. Hitzordua asteartean izango da, 20:00etan, herriko sarreran, Etxetxon. Emakumeak kirola gerturatzeko modu egokia denez, taldearekin bat egiteko gonbita egin dute Hoyosek zuzentzen duen taldeko kideek.

Aiako berri

Aiako leihoa
Arreta Taldea

Uda jendetsua Pagoetako parkean

Aurtengo uda ere bisitariz jositakoa izan da Pagoetako Parke Naturalean. Munduko hainbat txokotatik etorritako jendeak Iturrarango parketxeaz, lorategi botanikoaz, Agorregiko burdinolaz eta Pagoetak berak eskaintzen dituen bestelako erakargarritasunez goatzeko aukera paregabea izan du.

Azken urteetako joerari jarraituz, bisitatu gaituzten gehienak Kataluniakoak izan dira, nahiz eta Euskal Herriko jendea ere asko ibili den. Harritu gaituen Madrildik, Valentziatik eta Andaluziatik etorri den jende andana izan da, eguraldi freskoak erakarrita edo. Orokorrean, Espainiako ia probintzia guztietako bisitariak izan ditugu, Kanaria uhar-

tetakoak barne. Berezitasun moduan aipatu, kanpotarrak ere hurbildu zaizkigula eta, aurten lehen aldiz, israeldar batzuek ere bisitatu gaituztela.

Guztira, uztailean eta abuztuan 3.207 bisitari izan dira Iturrarango parketxea

Berezitasun moduan aipatu, aurten, kanpotarrak ere hurbildu zaizkigula Pagoetako Parke Naturalera eta aurten lehen aldiz, israeldar batzuek ere bisitatu gaituztela

bisitatzen eta beste 2.740 lagunek parte hartu du Agorregiko burdinolako eta errotetako bisita gidatuetan.

Aipatu beharra dago, erleen bizimodu ezagutzeko Iturrarango erlategian egiten diren bisita gidatuetara eta lorategi botanikoko harribitxiak miresteko antolatzen direnetara ere jende asko hurbildu dela. Jendeak gai horien inguruan daukan interes amaigabearen seinale.

Uda amaitzean dagoen arren, gogorazi Pagoetak ateak irekita izaten dituela urte osoan, bisitatu nahi duen edonorentzat. Iristear dagoen udazkena, urtaroz ezin hobea izaten denez Pagoeta bisitatzeko, basoak hartzen dituen kolore gorri biziak direla eta, denok gonbidatzen zaituztegu bertara hurbiltzera.



Txokoak eta jendea Udako kontuak

Eguraldia lagun izan ez bada ere, udak eman digu aukera hainbat gauza egiteko. Igerilekuan, adibidez, bertso afaria eta jai eivisarra, egin zituzten giro onean. Udalekuetan ibilitako haurrek ere irteera bat baino gehiago egin zuten, argazkian ikusten ditugun bezala Mollarri bidean. Egunerokora buelta umore onarekin izan dadila!



ORIO TARRAIZATEAREN GARRANTZIA

Sekretua non dagoen galdetu beharko genieke argazkian agertzen direnei: arraunean historia egiten jarraitzen dute-eta askok. Etxean dabilenak, esaterako, sekulako marka egina du: 1991tik 2010era artean, hutsik egin gabe, Orioko trainerua urtero puntu-puntu jarri du Kontxako Estropadetan egon ahal izateko Rafa G. de Txabarri prestatzaile oriotarrak eta baita lortu ere.

1992an, bandera irabazi zuten Kontxan eta, irudian, Zubietako Araetan agertzen dira, bazkaritarako garaian, bandera hartu, zabaldu eta guapo-guapo jarrita.

Hauek dira agertzen direnak. Behean markututa, ezker-eskuin: Rafa G. de Txabarri, Ibon Urbietta, Angel Larrañaga, Juan M. Larrañaga *Txiki*, Migel Angel Sarasua, Aitor Mujika, Juan Carlos Martin eta Patxi *Loko* Labaka. Goian zutik: Joxe Luis Korta, Migel Angel Lizarralde *Altzerri*, Jon Salsamendi, Joakin Otxotorena *Otxoto*, Patxi Francés, Jabier Puertas, Alex Esnal, Jokin Amilibia, Igor Esnal, Dionisio Redondo, Joxe R. Elizondo *Amañu*, Antonio Atxega *Alde* eta Angel Odriozola.

[ARGAZKIA: J. M. OLASAGASTI]

karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
TF / fax: 943 13 00 77
sagasti@leihok@telefonica.net
Arrentzale kalea, 65
20810 Orreaga (Gipuzkoa)

Segarra
RESTAURANTE

943 83 22 29

Santoro

Lana gogor egiteko garaia da, berriz ere

Denboraldi txarra izan da Oriorentzat. Oraindik esperantza txiki bat badago *play-off*ean zerbait lortzeko eta **irailaren 17an eta 18an dute urtea txukuntzeko aukera arraunlariek**. Ez neskek eta ez mutilek ez dituzte emaitza batere onak izan eta lana beltz egin beharko dute egoera hobetzeko.

TESTUA: IKER GURRUTXAGA
ARGAZKIAK: KARKARA

Ez da samurra inorentzat azkena izatea. Are gutxiago urtebete lehenago onenen artean ibili etagero. Hori gertatu zaie *Mirotzako* arraunlariei.

Antzekoa izan da neskena, emaitzak ez dira oso onak izan, baina arraunketa

hartzen ari dira oraindik eta, txalupan hasiberriak direnez, hobetzeko tarte handia daukate.

Mutilen kasua oso bestelakoa izan da. Istriborreko aldea guztiz berria izan da iazkoarekin alderatuz eta entrenatzaile aldaketa ere egon da. Baina, hori nahikoa ez, eta arraunketarekin ez dute asmatu.

Harrobiko gazteek elikatu dute aurtan

ere *Mirotza*. Koadrila indartsua eta ongi prestatua. Nabarmena izan da, Orio Bk izan duen atzerakada ikusita, lehen taldera pasa diren mutilak ez zirela nolanahikoak.

Baina talde-kirol batean normala den bezala, guztiak elkar ulertu eta guztiek modu berean jardun behar dute lanean, eta horretarako denbora asko behar iza-



ERREPORTAJEA

ten da, are gehiago, besteek aldaketa handiegirik egin ez dutenean.

Denboraldiko azken paladak

Azken estropada ofizialetan sentsazio hobeak izan dituzte arraunlariak eta Castroko banderan eta Kontxako sailkapen estropadan denboraldian urrun izan dituztenengandik gertuago ibili dira. Baita batzuen aurretik ere.

Dena dela, Lekeitioko sanantolinetan jokotutako banderan berriz ere aurreko ezinera bueltatu ziren. Lehen luzean Portugaletetik hamar segundoko aldea kendu zien oriotarrei, eta bukaeran 25. Lekitarra sartu zen tartean eta 3. izan zen Orio.

Hemendik aurrera ere izango da ikusmina, irailaren 17an eta 18an Bermeon eta Portugaleten *play-off* izango delako, eta denboraldia txukuntzeko aukera ezinhobeak izango dute arraunlariak. Helburua Camargo ez beste traineruen artean gutxienez bigarren izatea da, nahiz eta, agian, emaitzak momentuko pozerako baino ez duen balioko.

Prestatzailearen lana

Zaila da deskribatzea sailkatu ez ginen unean izandako sentimendua. Batzuk, sari moduan, diru pixka bat gehiago jasotzen dute helburua bete ostean; niri diruak ez dizkit ordainduko Kontxan pasatako uneak. Autobus ondoan beroketak egin eta gero pasealeku guztia gurutzatzean egiten dugun ibilalditxo horrek sarritzen du nire lana. Oilo-ipurditan jartzen zait azala urtero, negar ere egin dut inoiz emozioak gaina hartuta. Eta aurten han ez izateak tristura handia sortu dit. Horiek dira 20 urtetan Kontxan izan eta kanpoan gelditu den urtean Rafa Gonzalez de Txabarrik esandakoak.

Arrazoia, agian, aitzakia izango dira batzuentzat, baina egia da joan zaigun jendea pisu handikoa zela taldean, ergometroan ekarpen oso onak egiten zituztenak, eta horrek eragina izan du esan digu Rafak balantze bat egiteko eskatutakoa. Horretaz gain, hiru mutil lesionatuta izan ditugu hiru hilabetez, eta horietako batek ez du estropada bat bera ere jokatzerik izan azkenean. Baina bai, denboraldi eskasa izan da. Emaitza batzuetan ere ehunenekoek zerikusi handia izan dute, puntu asko galdu baititugu modu horretan.

Lasaitasunez jardun du hizketan Rafak, eta taldeari eta zaletuei ere sentsazio bera eman nahi izan die. *Urdaibairen afera guztia argitu arte, hortxe izango gara. Dena dela, gure maila bigarren txandan edoteko modukoazen, eta akatsa ez da fisikoa edo teknikoa izan, baizik eta bien arteko uztarketan egin dela kale.*

“Batzuk, sari moduan, diru pixka bat gehiago jasotzen dute helburua bete ostean; niri diruak ez dizkit ordainduko Kontxan pasatako uneak”

“Dena dela, gure maila bigarren txandan edoteko moduko zen, eta akatsa ez da fisikoa edo teknikoa izan, baizik eta bien arteko uztarketan egin dela kale”

“Orain presioa kendu behar zaie gaineretik; dakitena egiten badute, Portugaleterekin hortxe-hortxe ibiliko gara, bera izango da gure aurkari zuzena”

“alde izaera aparta du gureak, eta horretaz harro egoteko moduan dago Orio. Une hobeak eta okerragoak izan dituzte, baina mirestekoa da elkarren artean nola bilatzen duten indarra egoera horiei aurre egiteko”

“Liga gaztea da eta zer hobetua badu, zalantzarik gabe. Aurten, zorionez, talde guztiei eman zaie parte hartzeko aukera, eta hori albiste ona da. Baina azkenerarte ez genuen jakin ez non ez norekin aritu behar genuen lehian eta hor oraindik badago zertan hobetu”

“Elkarte bat gara, talde bat gara. Guztiok egon gara mutilek izan dituzten emaitzekin kezkatuta eta, noski, modu batean edo bestean izan du eragina neskengan. Ez da samurra lagunak larri dabilzala ikustea”

Erabiltzen duen metodoaz ere galde egin diogu Rafari eta *taldeak inoiz izan duen hobekuntza fisikorik gorena* aurten izan duela esan digu. *Hobekuntza normala zen, oso baxu dagoen taldeari zukua ateratzea errazagoa izaten da talde on bati baino.*

Prestaketa epe ertainera egin izan dut. Lehen estropadetara sasoi puntu ederrean iristea izaten da helburua, puntu batzuk batu eta aurrera begira dauden estropadetan, entrenamendu kargekin jokatuz, denboraldiko bandera nagusitara begira jartzeko. Aurten ezin izan da lan hori nahi bezala egin, helburua beti hurrengo asteburuan, epe oso laburrean, jarrita geneukalako.

Mutilen egoeraz galdetuta, oso urduri eta ezegonkor daudela esan digu. *Baina estimulu positiboak emanez emaitzak hobetzen dira: adibide argia izan da Kontxakoa. Orain presioa kendu behar zaie gaineretik; dakitena egiten badute, Portugaleterekin hortxe-hortxe ibiliko gara, bera izango da gure aurkari zuzena.*

Nesken denboraldiaren balantzea

Nesken denboraldia amaituta, Antton Belokirekin bildu ginen haren inguruan hizketan jarduteko.

Taldearekin harro dagoela nabaritzen zitzaion entrenatzaileari lehen unetik.

Arraunean gehixeago ibili den jendea falta izan zaigu aurten tostatan eta, agian, hori da behar genuena. Emaitzei begiratuta, aurten ere nahi genuen banderaren bat irabazi, baina denboraldiaren oso gustura gaude. Gure maila hobetu egin bada ere, beste txalupena ere nabarmen igo da.

Jendearen esanek ez dutela inporta behar pentsatzen du Belokik, *bandera bat ekarri ala ez, ez du esan nahi talde batek hobera egiten duen ala ez. Zuk hobera egin dezakezu, baina agian emaitzak ez dira horrelakoak.*

Gorabehera asko izaten dituzte taldeek, momentu hobeak eta kaskarragoak izaten dira. Belokiren aburuz, *azken estropadak oso onak izan dira. Pasaiakoa ere oso txukuna izan zen, baina gure sentsazioetan, azkenak izan dira balekoenak. Batzuetan ez dugu kanpora joaten asmatu, besteetan alderantziz. Estropada gehiagoren beharra du taldeak egoera ezberdinen aurrean erantzuten jakiteko.*

Egoera edozein dela ere erreakzionatzen ikasi behar dute oraindik neskek. Orioko estropadan, esaterako, lehen postuan ginela, ez genuen arraunketa sendotzen jakin. Dena dela, neskak oso gustura geratu ziren Kontxan jokatutako estropadarekin. Urteko estropadarik onena izan zela esan zidaten, eta horrekin geratzen naiz.



Ligan 5. izan dira neskak, eta Kontxan sailkatzeko aukera ederra galdu zutela onartu du Belokik. *San Juan ikusten genuengure kontrario zuzena, Bizkaia eta Hondarribiari aurre hartu izan diegu beste estropadetan, eta San Juan iruditzen zitzaigun gainditu beharreko taldea.*

Ziabogan trabatuta geratu zirenean, aprobetxatu beharreko momentua zela bagenekien, baina ezin izan genuen sailkatzea lortu. Dena dela, oso estropada polita izan zen gurea.

Neska eta mutilen arteko ezberdintasunari buruz galdetuta, *neskak helburuak lortzeko setatiagoak dira. Mutilekin alderatuz, arlo psikologikoan koska bat goitik daude. Talde izaera aparta du gureak, eta horretaz harro egoteko moduan dago Oriu. Une hobeak eta okerragoak izan dituzte, baina mirestekoa da elkarren artean nola bilatzen duten indarra egoera horiei aurre egiteko.*

Datorren urterako oraindik ez dago erabikirik hartuta. Neskekin ezer ez du hitz egin Antton Belokik, eta horren inguruan zerbait argituko dutelakoan dago irailaren 17an egingo duten denboraldi amaierako afarian.

Batzuk kanpora doaz ikastera, eta horiek entrenatu ahal izateko modua bilatu beharra dago. Dena den, proiektu honekin aurrera egiteko gogoz gaude.

Euskotren ligari buruz ere izan zituen hitz batzuk Belokik. *Liga gaztea da eta zer hobetua badu, zalantzarik gabe. Aurretik, zorionez, talde guztiei eman zaie parte hartzeko aukera, eta hori albiste ona da. Baina azkenerarte ez genuen jakin ez non ez norekin aritu behar genuen lehian eta hor oraindik badago zertan hobetu.*

Neskek ere mutilen lanari begira pasa dute denboraldia Anttonek esan digunez. *Elkarte bat gara, talde bat gara. Guztiok egon gara mutilek izan dituzten emaitzekin kezkatuta eta, noski, modu batean edo bestean izan du eragina nesken gain. Ez da samurra lagunak larri da biltzala ikustea.*

Datorren urtean, Belokik nesken taldearekin jarraitzeko asmoa du.

Zuzendaritza batzordearen erabakia

Izan dituzten emaitzak ikusita, arraun elkarteak zuzendaritza batzordeak bere karguak bazkideen eskutan uztea erabaki du.

Horretarako, ezohiko batzarra deitu du irailaren 23an, ostirala, iluntzeko 19:00etan, Kultur Etxean. Bertan, zuzendaritza batzordeak jarraituko duen ala ez erabakiko da, besteak beste, eta oraingoa ordezkatu nahi dutenek beren burua aurkezteko aukera izango dute. Gertatzen dena gertatzen dela, Luis Jaber Amenabarrek elkartearen utzikiko du.

KORTA ORIORI BEGIRA JARRITA

Kontxako sailkapen estropada. Egurdiko 12:30ak. Donostiako moilako arranplan ez zebilen jende asko, baina bat nabarmena zen, lanean. Joxe Luis Korta Bizkaitarra ontziari azken ukituak ematen ari zen.

Udan bolo-bolo ibili ziren herrian hainbat zurrumurru eta horiek argitzeko hizketalditxo bat izan zuen KARKARA prestatzaile oriotararekin.

Ni laguntzeko prest nengoela esanaz joan nintzen, Zumaia estropadaren ostean, Orioko Arraun Elkarteko presidente Joxe Kutz Expositorengana. Baina, gutxienez, laguntzeko denbora eta bideoren bat edo beste beharko nuela esan nion. Denbora gutxira bideoa jaso eta, ikusi ostean, nire iritzia eman nien oriotarrei. Astearen behin ere Oriora joateko prest agertu nintzen, astearteetan Kaikurekin jai nuela baliatuz, baina ez didate deitu.

Orioren emaitzekin atsekabetuta agertu zen Joxe Luis, baina banderen lehian izan baginen, ez nien lagunduko, hori ziur. *Hala ere, dauden egoera ikusita, nire aldetik ahal dudana egiteko prest izango naiz. Iraganeko ikamika guztiak ahaztuta ditut nik, oriotarra naiz, bihotzean daramat Oriu, eta herriko taldea horrela ikusteak edozeini egiten dio min.*

Datorren urterako Oriori zer esan goiiokeen galde eginda, *bere buruari baino ez dio begiratu behar, izan zen erantzuna. Oriu, dagoen lekuan dagoela, elkarte garrantzitsuena izango da. Zaleak beti izango ditu ondoan, eta arraunlari onak ez zaizkio sekula falta. Bere jardunean aurrera egingo du, eta merezi duen lekura itzuliko da. Ez da lehen aldia une larrian egon dela, eta Oriok beti jakin izan du aurrera ateratzen.*

Kortaz gain, arraunlari sorta ederra aritu da kanpoan. Goian ibili direnen artean, Mikel Portularrume Paorra aiarak eta Migel Angel Millares oriotarrak Urdaibaiekin irabazitako Kontxako bandera dago. Joxean Olaskoaga Aizperoren Portugaletetik KAE-1 liga irabazi du eta, bertan, anaia Aitor eta Jon Iriondo oriotarrak ere tostetan aritu dira. Horietaz gain, Hondarribian dauden Mikel Orbañanos, Asier eta Gorka Puertasek bi bandera irabazi dituzte TKE ligan.

Biba zu!

Hilabeteko oporrak, eta Oriotik urrun samar ibili naiz. Lasai ibili ere, inongo ordutegi eta *aktibitate extraeskolarririk* gabe. Zein zoriontsua naizen lanera joan gabe. Zein zoriontsua inongo *aktibitate extraeskolarririk* gabe!

Lau aste horietan, ez dut hemengo berrikir izan eta, beste askok ez bezala, nik ez dut kardiopatia post-estropatikorik jasan. Internetera konektatu naizen aldi eskasetan kataklismoa usaindu, eta berri ere kokotero azpian babestu naiz. Koko bat gainera erortzea mingarriagoa ote gero etorriko zena baino.

Orion estropada jokatu zeneko larunbat hartan hartu nuen bueltako abioia. Ordu luzeetan ezer jakin gabe izan nintzen. Avenida Americaseko autobus geltokian izan nuen mailaz jaitsiko ginenaren berri, Madrildik etxeokokin hitz egitean. Badaezpada ere, etxeko zarauztarrak hartu zuen hura esateko ardura. Gerora jakin nuen tornillo fabri-

kako anaia gazteak egun osoa zeramala hitzik egin gabe. Animo, aitatxo!

Aramaioko hiru mutil gazte nituen alboan eta lau zuritoren bueltan eman nien notizia: Orio zulora. Haiek ezin izan Orion izango zen giroaren aztarnarik ere. Mendi puntan bizi denaren lasaitasuna izango da hori.

Bueltakoan, nire bidaiaren gaineko galdera piloa espero bai, baina ez da horrelakorik gertatu. Eta ez pentsa gero nire erretolika posibleek beldurtu egin dutenik nire audientzia. Ez, ez, oraindik bada mariberritsu honen hizketaldi luzerik agoantatzeko pronto dagoenik!

...Aita, nik ez dut ulertzen zergatik ez dien oriotarrei jokatzeko uzten, horiak dira eta onenak!

Kalean hau edo hura topatu, lankideekin bulegoan lehenengoz bildu, hango eta hemengo lagunak bisitatu, horrek guztiak ez du jaso dudane lehenengo galdera aldatu: zer moduz da herria? Emozio betez esan dezaket denek ere kezka galde egin dutela, adarra jotzeko inongo intentziorik gabe. Bada, solidaritate

osoa erakutsi duenik ere. Realzale porrokatu den lagun batek horrelaxe esan zidan aurrekoan: lasai, gu ere jaitsi ginen: igoko zarete.

Sei urteko neska kozkor batek, baina, lortu du nire kopeta alaitzea. Azken igande honetan oinez egin genuen Donostiarako bidea. Igeldo pasa eta Ondarretara jaistean, umearen paretik pasatzean horrelaxe bota zuen, erdi zaputzean: bada aita, nik ez dut ulertzen zergatik ez dien oriotarrei jokatzeko uzten, horiak dira eta onenak! Barru-barruraino sartu zitzaidan, aita hura goitik behera sanjuandarrez jantzi izanak ez baitzuen egia esatera kokildu.

Biba zu!

BACHEN LOREAK
OREKA ENERGETIKOA

- Italamendu naturalak
- Oreak energetikoa
- Barchen Loreak

Itxas Fernandez Huelguen
Tel: 943 796 071
www.bachenloreak.com

ITZUAR
kirolak

Tel. 943 83 31 03

943 83 09 86

KOASTA

Wifi zerbitzua

Kopak, gero giro aparta...

LOBETXU JETETXU

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

Joana Murgiondo
Aseguru-agentia

ASEGURUAK

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

LURDES
SERVICIOS

Eusko Gudari, 4- Tel. 943 83 00 24

Be apaxdegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8- Inafo
Tel. 943 13 47 29
0180

RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

iñaki argazkiak
caperochipi

ezkontzako asmarik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

Lizaso
dekorazioa

Eusko Gudari, 48
Tel. 943 83 00 04

KOLON TXIKI
herriko enparantza

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

Adarretatik helduta

Antonio Campos. Jubilatua.

Nire honetan
Jabier Zabaleta

Bizitza eta ilusioa

Gogoeta hauen abiapuntu gisa Esperanza Molinari –antropologian aditua, unibertsitateko irakasle...– irakurri niona dakarkit. *Pertsona bat naiz, profesional lanpetua. Ez denbora sobera daukan zahar bat.*

Ni neu ere pertsona bat naiz, heldua, jubilatua, baina inoiz ez nuke izan nahi *denbora sobera duen zahar bat*.

Edozein unetan bizi ahal izateko ilusioa behar da. Gu bizitzen ari garen munduko ibilbidearen azken etapan, behar bada, inoiz baino gehiago beharko dugu bizitzeko ilusioa.

Bizitzak, gaur ere, ematen dizkigu posibilitate ugari ilusioz bizitzeko, lanpetuta egoteko, denbora sobera ez izateko.

Azken etapa hau, oraintxe arte, amortizatu ta zegoen ondare bat zen; gaur egun, ordea, gauzak aldatzen ari dira, eta esan genezake gure sektorea inbertsio bat ari dela bilakatzen.

65 urtetik gorakoak Euskadin %18 izatera iritsi gara, eta kopurua handitzen doa. Egoera horrek ondorio garrantzitsuak ekarriko ditu, ekartzen ari da jadanik, bai ekonomikoak, baita antolakuntzakoak ere gizartean. Badaude esparru *tradizionalak*: osasun zerbitzuak, pentsioak... eta badaude berriagoak, gaurkotuak: prestakuntza, kultura, adinekoentzako kirola, balioak...

Partaidetza aktiboari bideak zabaldu behar dizkiogu eta ahalegin horretan gizarte osoak lagundu behar digu, zahartzaroa ez baita gauetik egunera gertatzen den zerbait; prozesu bat da, egunetik egunera gertatzen ari dena, eta ez zaharren zerbait bakarrik

Aldaketa horien barruan ez dugu hiritar pabiloak izan nahi, administraziokoek guretzat erabakitzen dutenaren hartzaille hutsak. Erabakiak hartzen diren lekuetan, emateko asko dugulako, partaide aktiboak izan nahi dugu.

Partaidetza aktibo horri bideak zabaldu behar dizkiogu eta ahalegin horretan gizarte osoak lagundu behar digu, zahartzaroa ez baita gauetik goizera gertatzen den zerbait; prozesu bat da, egunetik egunera gertatzen ari dena, eta ez zaharren zerbait bakarrik.

Ahalegin horiek guztiak egiteko, gertatzen ari den aldaketaren une honetan –amortizatuak izatetik, inbertsio izateko bidean– asko dago egiteko.

Argitu behar dut partaidetza aktiboaren inguruan ari naizela, noski, ze zahartzaroa dela eta Administrazioa lan bikaina ari da egiten. Elkarrekin sortzen ari dira, ugari, behar bada gehiegi, une honetan interesgarria izango litzakeelako, ahots elkartu bat edukitzea, eta ez, frankotiratzaille moduan, handik eta hemendik aritzea. Baina dagoena hartu behar dugu eta dagoenetik saiatu ahaleginak egiten.

Nire buruari hiru galdera egiten dizkiot, eta galdera horiek edonorentzat baliagarriak izan daitezke.

– Nola ari naiz zahartzen eta nola nahiko nuke zahartzea?

– Zer aldaketa –sozialak, kulturalak, produktuetan, zerbitzuetan– eman beharko lirake nik nahi bezala zahartzeko?

– Zer egin nezake nik, nire kabuz, nik nahi nukeen zahartzaroa indarrean jartzeko?

– Zer eskatuko nioke jubilatuen elkarteari?

– Zer gizarteari?

Behar bada beste batean saiaturik naiz galderari erantzuten edo, momentu hauetan, zahartzaroen inguruko elkarrekin jasotzen dutana zuei azaltzen. Ea norbait, Oriotik edo Aiatik, inguratzen den, aldaketak ematen ari diren une honetan, partaide aktibo izateko gogoz. Betiere, helburu bakar batekin, bizitza honetan bizitzeko gelditzen zaiguna izan dadila ilusioz beteriko une bat, norberarentzat eta baita inguruan ditugunentzat ere.

Maizter berriak

Maizter berriak ditugu udaletxean lau urterako eta, askok aurreneko aldia dutenez, nahiko lan izango dute etxeari tamaina hartzen eta nola ondo gobernatu asmatzen.

‘Magister’ hitzak durundi ozena du latinez, sustrai beretik eratorri diren inguruko erdaretako ‘maestro’ eta ‘maître’-k bezalaxe. Hitzen mendeetako bizitzan gertatzen diren karanbola horietakoren bat dela-eta, ordea, euskarazko ‘maizter’ hitzak, jatorri bera duen arren, zeharo bestelakoak ditu esanahia eta tonua: maizter hitza apala da ‘magister’ hotsandikoaren ondoan, distira eta handinahi gutxikoa. Horrexegatik gus-tatzen zait niri, seguru asko.

Beste norbaiten etxean errentan bizi denari esaten zaio maizter eta iruditzen zait ezin egokiago datorrela hitz xume hori udaletxeko zinegotziak izendatzeko. Maizter baitira, eta ez etxeko nagusi; aldi baterako daude hor, gu guztion etxean, eta guztion artean erabakiko dugu, lau urte barru, maizter-tza berrituko diegun ala ez. Bitartean, lana txukun eta arduraz egitea dagokie. Hamahiruei. Animoa eman eta asma dezatela opa diet, guztion onerako.

PERTSIANAK
A K O M A Z
Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel: 943 13 29 01 Magistria 600 TO 52 27

SOLOZABAL
autoeskola
Eusko Gudari, 30-1, ez
telef: 943 83 08 12

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremuntak
Tel: uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

tel/fax: 943 89 00 69
Bilboan 1984-1985
URBIDE
ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU, ERAKUSKETA

PUBLIZITATEA

ITSASADARRA, S. L.
Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria
finka administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 83 40 25 Fax 943 83 54 86 itsasadarra@itsasadarra.com
Iba-Orio 4, botea. 20810 Orio

PIZZERIA
KALETA



ZABALIK!
PROBATU
EZAZU!

ARRANTZALENALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarieko mundialak

ABERUJOA (GALIZIA) TEL: 948 88 16 97

azkue
karrozeria



Ubagun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
Tlfax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

bodegasERRASTI, S. L.



Eskualderako banatzailea
Zudugurak, Getariako txakolinak,
Ilargares, ardo gorri infama
Bodegas Gailur, Señorío de Laurgain,
Gailur eta Ardanegi,
Arahaz Errastoko ardoak

Buen Buai, 46. 0810 • 943 83 03 66 / 83 58 52 • E-posta: bodegaserrasti@rise.net

Carmen eta Txomin
ARRANDEGUI



943 83 05 37 / 943 83 27 47

uranga
autozerbitzua



Aliprox

Enche Guden Etxea 13-15
ORIO
943 83 38 75

Zaragueta
Eskola Orio



telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@mediuntza.net

Galeria I



Igo zaituz hitza berriak!

943890416-677149934
galeria1orio@hotmail.com

arxologia
MIRANDA



teknika eta letin, eskulena...
besta ilen antolatzen
egunetako

Udazketa bidai. 1 • 660 42 82 70 • ZARAUTZ

TANATORIO ZARAUTZ



EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorak

* Donostia eta probintziako ospitaleetan
* Aldiarako zerbitzua
* Belatorio gelak
* Korcjak, eskulak, tranitzioak...

Araba kalea, 35. Zarautz
Tel: 943 89 48 77 Fax: 943 89 48 48
e-mail: harnespil@tanatorio.net

ITSASADARRA, S. L.
Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria
finka administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 83 40 25 Fax 943 83 54 86 itsasadarra@itsasadarra.com
Iba-Orio 4, botea. 20810 Orio

Gabon
TABERNA

plater konbinatuak pintxoak

Tfnba: 943 83 06 09

INDO



Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Olasgoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

Gaia emanda Ehun egunen buruan

Udal hauteskundeak egin zirenetik ehun egun pasa dira. Halakoetan ohitura denez, lehen balorazioa eskatu diegu udal gobernuari eta oposizioko alderdiari.

Okerrerako aldaketa

Orainxe izango dira 100 egun udal gobernu berria osatu zirenetik. Konfiantza tarte pasada eta, egia esan, ezin genezake baieztatu udal gobernu horrek bide egokirik doan ala ez. Izan ere, egin, ez da askorik egin, eta egin dena, aurreko gobernuak egiten zuena, eta hain gaizki zegoena, errepikatu besterik ez dute egin.

Izan ere, legealdi hau oso oso kritikatu izan den Bisigu Festaren laugarren edizioa rekin hasi genuen. Udal gobernu osatzen dutenek gogor krititatu izan duten festa da hori, gobernuan dauden batzuk festaren kontra burutzen ziren ekitaldietan ere parte hartu izan dute gogotsu. Festaren oinarria aldatuko omen zuten; ba aurten festa berdin-berdin joan da eta ez dugu ez *manifa* ez prentsaurrekorik ere izan festaren kontra. Aldaketak burutzeko denbora eza izan omen da aldaketa sumatu ez izatea-

Haien programan, behin eta berriz, azaltzen zen partaidetza, gardentasuna, irekitasuna... kostatzen ari zaie ateratzen!

ren arrazoiak.

Hala ere, denbora aurrera joan ahala, aldaketa famatu hori -gogoratu alderdi bozkatuena alkatetzatik kentzeko arrazoiak hori zela- ez dugu inondik inora ikusten. Bueno, bai Bilduk eta bai Orainek aldarrikatzen duten aldaketaz ari gara. Haien programan, behin eta berriz, azaltzen zen partaidetza, gardentasuna, irekitasuna...

kostatzen ari zaie argitara ateratzen! Edozein informazio jasotzeko, alkatea jakinaren ganean jarri behar dugu; idatziz eskatzen da informazioa -behar den moduan- baina erantzuna jasotzeko egun ugari pasatzen dira, udaletxean gertatzen denaz azken momentuan jasotzen da, jasotzen bada.

Sumatu dugun aldaketa nabariena okerrerako izan da. EAJk egindako lanaren ondorioz hitzarturik zeuden hainbat diru-laguntza ez dira jasoko, eta herriarentzat oso garrantzitsuak diren proiektuen bideragarritasuna arriskuan dago. Txuleta festa ere ez da egingo, nahiz eta ostalaritza munduari Orainekoek pasatako inkesta batean, zehazki, festa horiek oso egokitzat jo.

Bueno, zerbait egin bai, oporrak egin dituzte. Berriak zirela eta eskarmenturik ez zutela eta EAJren partaidetza eskatzen zuten, baina dagoeneko dena ikasia izango dute, oporretarako denbora ere izan baitute.

Orioko EAJ

Patroi, baina ez armadore

Tentsio handikoak izan dira hauteskunde kanpaina eta Udalaren osaketa. Horrek asko zailtzen du egunerokoa lana, zinegotzientzat eta teknikarientzat oztopo da. Kalendarian animoak eman dizkigu espero ez genuen jende askok, organo publikoetan aldaketak beharrezko direla sinistuta. Beste batzuk, berriz, errezeloz eta amorruz begiratu gaituzte, norbait zerbait lapurtu izan bagenio bezala. Bildun oso garbi daukagu: zilegitasun osoz gaude gobernuan. Lanera etorri gara, ideia berriekin, urteetan egin dako lanari errespetua gordez.

EAJk ez du gobernuan parte hartu nahi izan, liberazio erdia eta bi batzorderen ardura eskaini zitzazkien arren. Pena da, baina errespetatzen dugu erabakia. Hori bai, gobernu zaharraren eta berriaren artean ez da transmisiorik izan. Ez lanegun bat, ezta bilera bat ere.

Uda tarteetan, udal aparatua berriaren koordinazioa gauzatzen ari gara. Ikusten ez den lana. Beharrean diren taldeei entzun eta laguntza eskaini diegu, kalean kon-

EAJk ez du gobernuan parte hartu nahi izan, [...] Pena da, baina errespetatzen dugu erabakia

pondu beharrekoak bideratu eta udal zerbitzuen jarraipena eta azterketa egin nahi da, abian ziren proiektuen informazioa bildu eta proposamen berriak edo alternatibak ideiatu ditugu, besteak beste.

Ezinbestekoa da herriari Udaleko ateak zabaltzea. Barne araudi berria landuko dugu zinegotziok, teknikariorik eta herritarrok. Interes duen jendeari informazioa eskura izateko. Horrek ez du esan nahi erabaki guztiak denen gustukoak izango direnik. Dagoeneko aurrera-

pauso batzuk ere egin dira eragileen harremanen alorrean: lehen aldiz kirol taldeetako ordezkariak mahai baten bueltan eseri ditugu.

Aurki abiatuko da Topagune berdea ere, ingurumen gaiak landuko dituen taldea. Eragile arteko sinergiak aprobe txatzea Udalaren egitekoa dela sinesten dugulako.

EAJk Udala gelditu dela esango du. Ez garela lanera joaten eta ez dugula proiekturik. Besteek hitz egiten dute gutaz, beste behin. Ez goaz jokoan sartzeri. Kritika politiko guztiak onartzeko prest gaude. Errespetua pertsonen eta lanari, hori eskatzen dut. Frogatu ezin daitezkeen adierazpenek ez dute balio, ezta gure ahotan ere.

Herriko patroia sentitzen gara, eta ez Orioko herriaren armadore. Orioko Udala ez da gurea bakarrik, ez al gara akats horretan eroriko.

Beñat Solaberrieta

Bildu udal taldearen izenean



Soinujole eta dantzariak pasio handiz aritu ziren Aiako emanaldian. KARKARA

Bi orduez hauspoa eta hankak astintzen

Kritika Oinkari eta Korrontzi

Infernuko hauspoa emanaldia,
Aian, 2011ko abuztuaren 8an

Aiako festetan ospatu zen ekitaldietako bat izan zen Korrontzi eta Oinkari taldeek osatutakoa. Ekitaldi hau abuztuaren 8an, astelehenarekin ospatu zen eta bertan izan nintzen ikusten. Gaueko 22:00etan eman zioten hasiera Aiako idi-proba plazan. Hasiera batean, ez zegoen jende asko, nahiz eta berehalaxe jendez lepo bete zen plaza.

Ekitaldi honen aurretik, hainbat pertsonak galdetzen zuten, *zer dira Korrontzi eta Oinkari?* Korrontzi, musika talde bat da non bost pertsonak hainbat instrumento jotzen duten eta aldi berean abestu. Horiekin batera Oinkari dantza taldeko hainbat dantzari dantza egiten dute. Orokorrean dena gustatu zitzaidan: Korrontzi ikarragarri gustatu zitzaidan bere musika oso ederra zelako, eta Oinkari ere bai, denek orokorrean dantza oso ondo egiten zutelako. Ekitaldiak *Infernuko hauspoa* zuen izena, eta, benetan, sekulakoa izan zen.

Pare bat orduren ostean, ekitaldiari amaiera eman zio-

ten, eta publikoko pertsona gehienei izugarri gustatu zitzaien, beraz, zorionak Korrontzi eta Oinkariri, eta Aiako festa batzordeari horrelako ekimen polit bat antzolatzeagatik.

[ANDER BELDARRAIN]

Ikasleak idazle
Imanol Fernandez

Orio eta obrak

Orioko herria ez da lehen zena: hondartzako etxeak, tren geltokia eta trenarentzako tunela, Ikastola berria, padel eta tenis kantzak... Orioko herria erabat eraldatu dute. Eusko Gudariaren kaletik hasi eta Bikamiotako errotondaraino errepide guztia asfaltatu dute, nire ustez hori egiteko premiarik ez zegoenean.



Hondartza erabat aldatu da, autopista azpian zegoen zelaia mahaiekin, palazioa... dagoneko ez da existitzen. Mallapeko zabalunea ere egin zuten, baina nik ez diot inongo erabilgarritasunik ikusten, eta bertan eraiki den hormigoi festak izugarrizko inpaktua sortzen du. Nire iritziz, jendea gusturago egongo zen Orioko herria lehen zen bezala mantendu izan bazen.

Mallapeko zabalunea ere egin zuten, baina nik ez diot inongo erabilgarritasunik ikusten, eta bertan eraiki den hormigoi festak izugarrizko inpaktua sortzen du

ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino
eramaten ditugu

KARKARA

943 83 09 84 aita Iertxundi, 36
ORIO

LEIHOLAN

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

Indurua Pante teknikoak Agile, 8 28740 Zaitza	Orduak San Francisco, 1 28800 Zorrotza	Orduak Bila Leizola, 21 28810 Orea Tel: 943 09 49 10
--	---	---

» HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Gaur egun, aste bakar batean entzuten den musika klasiko, koral, eliz-musika edo herri-musika guztia zenbatuko bagenu, gainontzeko estiloak baino gehiago izatera hel daitezke. [...] Musika bizi da soilik entzuten denean, eta soilik entzuten

da partituretan betikotzen denean edo grabatzen denean. Euskal musika gehiena oraindik inprimatu gabe dago.”

Juan Rekarte. AusArt musika etxeko ekoizlea

» OSPAKIZUNA

Lehbib sahararrari agurra Aian

Bost urtez izan da Lehibib sahararra Aian uda igarotzen *Oporrak bakean* programarekin. Ez da berriz etorriko eta agurrerako merienda egin zioten aiarrek. Hurrengo egunean, gainera, Aiatik autoan abiatu zenean herriko umeek sorpresa prestatu zioten; frontoiaren ondotik pasatzerakoan, zain zeuden errepidearen bi aldeetan koloretako puzgarriekin Lehibibi itzultzeko eskatuz. Hunkituta jaso zuen agurra mutilak.

» ZO RITXARRAK!

Orioko
arraunzaleei

Egia da Orio oso ezaguna dela arraun munduan, besteak beste duen zalegoatik. Herria bandera horiz janzten dugu estropada garaia hasi orduko, eta aurten ere halaxe egin dugu nahiz eta emaitzakez diren nahi bezain onak izan.

Dena den, zale horiek mutilen estropadetan defendatzen dute sutsuki kolore horia, eta han izan ziren Kontxako estropadetarako sailkapeneko egunean ere.

Zoritzarrez, ez zen horrela gertatu nesken txanda etorri zenenan. Bezperan Donostian *Aupa Orioka* zebilen jendea, terrazan eseri eta kafea hartuz zegoen: txalorik ez, eta estropada ikusi ere ez...

Oraindik asko du hobetze-
ko orioko arraunzaleak.

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
 IZORROKAK BAISSUAT

 Santiago ezua - 18 postakutxa
 Tel. 943 830 743
 Fax. 943 134 634
 Email: tmmanterola@euskalnet.net
 20 910 ORIO - GIPUZKOA



 Ezerako balbula
 AENOR kalitate ziurtatiduna

egîn-zure,
publizitatea
gurean



LUMINA
A. DIZKAR
943
83 15 27

Orioko
Ogia

ORIOGI

OPI. OKINDEGIA
Frontal andean
Tfnoa: 943 83 01 89

IÑAKI ORBEGOZO

  

IRUKUNDIA ETXAKO HERRITZ BARRIO ZERBITZUA
ENPRESA ZERBITZUA
TAXISERVICE
MEZULARITZA

608 827 826

TEL: 608 827 826 FAX: 608 827 826

edutecnologia
ANTILLA
jatolucan
Mrs. Ana Karen, 2 - 191-4018 30-23-11

EZPALAK



Aurtengoa triste joan da. Jar ditzagun oinarri sendoak, laster garai hobeak izateko. HECTOR SEJO

Orio gabeko estropadak

Oroimenaren kutxa

so gutxitan geratu da Oriokanporatuta, Donostiako estropada jokatu gabe. Hiru aldiz besterik ez: aurtun eta 1985 eta 1990ean. Bi urte horietan, oriotarrentzat sailkapen-estropada kanporaketa bihurtu zen. Beste urte batean, 1986an, oriotarrak bulegoan kanporatu zituzten, ez uretan, besteek bat egin zuten oriotarrei boikota egiteko. Ziotenez, lau arraunlari oriotarrek Espainiako selekzioaren fitxa egin zutelako. Askoren ustez, mendekuz 1983koagatik. 1983an Zumaia, Kaiku eta Castrok uko egin zioten estropada oriotarrek in jokatzeari.

ari, Oriokanporaketan merezi gabe sartu omen zutelako.

Aurtun ehun urte, 1911n, jokatu gabe geratzea erabaki zuten oriotarrak izan ziren. Orduan araudiak zioen Kontxako bi estropadetan mutil berberak jokatu behar zutela, eta getariarrak bigarrena bi mutil berriekin agertu ziren, ordezkatuak gaixo zeudela-eta. Oriok protesta egin, epaileek bi mutil haiek jokatzeari onartu - aurtun Astillerokoari ez bezala - eta oriotarrak, protesta moduan, jokatu gabe geratu ziren; nahiz eta 2 minutu eta 39 segundoko bentaja izan bezperako estropadatik. Getariarrek bakarrik egin zuten joan-etorria, eta bandera irabazi, Donostian eskuratu duten azkena. Gero, oriotarrei erakusteko, Mendibeltzera

etorri ziren, handik astintzeko. Bada kasualitatea, aurtun, 100 urte igarota, getariarrek ia berriz irabazi dute Donostiako bandera, oraingoan neskek, Tolosakoekin batera.

Aurtun Oriok ez du jokatu Donostian, baina zenbait oriotarrek bai, soinean horia ez, bestelako kolore bat zutela. Eta Orioko arraunzale askok horixe zuten gogoan: aurtun horiek denak Orion izan balira, zer? ETBko *Boga-Boga* saioan traineru bateko hamalaukoa osatu zuten, azken urteotan Orioko trainerruan ibili eta orain beste traineru batean dabilzan mutilekin, denak punta-puntako arraunlariak. Eta Oriok bigarren mailara! Zein da Orion arrauneko gaia, debaterako?

[IÑAKI ITURAIN]

» JAIOTAKOAK

- Nayely Ainara Vasquez Salgado, Orion, abuztuaren 18an.
- Telmo Gaztañazpi Agirrezabalaga, Orion, abuztuaren 17an.
- Ixel eta Nahia Agirre Larrañaga, Orion, abuztuaren 19an.
- Bingen Miera Avila, Orion, abuztuaren 14an.
- Manex San Jose Tamayo, Orion, abuztuaren 6an.
- Paola De la Hoz Iribar, Orion, abuztuaren 3an.
- Alaitz Etxeberria Manterola, Orion, uztailaren 27an.
- Arrate Igartua Viso, Orion, uztailaren 21ean.
- Ibai Alberdi Ostolaza, Orion, uztailaren 4an.
- Tayyab Muhammad Rafiq, Orion, uztailaren 4an.

» HILDAKOAK

- Anttoni Mugika Peña, Orion, irailaren 10ean, 93 urte.
- Joxemari Iribar Iribar, Aian, irailaren 9an, 61 urte.
- Adrian Frias Lopez, Orion, irailaren 8an, 68 urte.
- Manuela Beldarrain Unsain, Orion, abuztuaren 30ean, 85 urte.
- Inaxio Lazkano Zulaika, Aian, abuztuaren 21ean, 90 urte.
- Maria Errazkin Zubigarai, Orion, abuztuaren 14an, 92 urte.
- Justa Arregi Olaskoaga, Orion, abuztuaren 12an, 97 urte.
- Manuel Arruti Etxeberria, Orion, abuztuaren 6an, 81 urte.
- Antton M. Peña Joaristi, Orion, uztailaren 12an, 68 urte.
- Jose Juan Sarasua Segurola, Orion, uztailaren 6an, 76 urte.

AHOLKULARITZA
Fisioterapia, inbentarioa, kontablea

Eugenio Garmendia

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

Goizeko
KAFETEGIA

943 83 28 55

Aita Iribarri, 33 bidea - ORIO
Autobus parada ondoan

auPairExcellence

Enara Hehir-Alustiza

- Dena izen-ematea
- Arreta pertsonalizatua
- Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesaz
- Planifikazio egonakortasun jarraitua

info@aupairexcellence.com
www.aupairexcellence.com

TL: 0035 396 312 57 42



KARKARA

“Kalitatezko arreta eskaintzen duen *au pair* agentzia da gurea”

Enara Hehir-Alustiza

Au Pair Excellence agentziako kudeatzailea

Au pair hitzak parekotasuna esan nahi du, eta hori lortu nahi du Enarak sortu berri duen agentziaren bidez: hemengo gazteen eta Irlandako familien beharretara kudeatuko duen zerbitzuak harreman orekatua eta denon onerakoa lortzea, alegia.

PAT COWIE

Zergatik sortu duzu agentzia?

Irlandan 11 urte daramatzat, eta finantza enpresa batean egiten dut lan, baina inoiz ez da jakiten, gaurko egoera ikusita, noiz esango dizuten kalera zoazela, eta B plana garatzea pentsatu nuen. Bestalde, bi aldetik jaso dut eskaera: amak askotan deitu dit ea hemengo neska bat *au pair* moduan hartzeko familiaren bat ezagutzen dudana, eta Irlandako lagunek, gehienak nirea bezalako egoeran bizi direnek, lana eta familia dituztenek, alegia, laguntza behar dute etxean; baina

inguru honetan ez dago *au pair* agentziarik. *Au pair* ibilitakoa naiz, beraz, badaikit zer den, eta ondo doa lan hori nire izaerarekin.

Zer esan nahi duzu?

Oso ondo dakit gurasoak kezkatzen direla 17-20 urteko semea edo alaba kanpora joaten denean, eta *Excellence* izena eman diot agentziari arreta berezia jartzeko asmoa baitut gaztea gustura dagoela ziurtatzeko. Familia eta *au pair* enanteko akordioa bien onerako izan behar da, ez baita neskame bat etxean izatea diru gutxiren truk. Eta biekin egongo

naiz harremanetan eten gabe. Harrera-ko familia, etxea eta *au pair* aren gela ezagutuko ditut. Bestalde, ardura hartuko dut jakiteko harrerako familiak behar bereziak dituen, nahiko eskarmentu txarrak izan baintuen nik nire garaian, familiaren sinesmenengatik edo haurren osasun egoeragatik. Halako gauzak aurretik jakin behar dira, eta gaztea jakinaren gainean jarri joateko konpromisoa hartu baino lehen.

“Bi aldetik jaso dut eskaera: amari galdetzen diote ea familiaren bat egongo den eta lagunek ea gazteren bat ezagutzen dudana”

“Hemengo gazteak bereziki estimatzen dituzte sentsibiltate gehiago dietelako familia eta keinu afektiboak”

Nola hasten da harremana?

E-postaz, telefonoz edo internet bidez www.aupairexcellence.com helbidean, edo telefonoz. Bestalde, agentziaren izea ahoz aho zabalduko da. Normalean, irailean, urtarrilean edo Aste Santu ondoren joaten dira gazteak, baina aurretik kudeatu behar da, jakina. Erregistratzea doan da, egonaldiak irauten duen bitartean astean zerbait ordainduko du, eta ingeleseko klaseetara joan nahi badu, 25€ ordainduko ditu hori kudeatzeko.

Baina ez al da langile merke bat izatea?

Inolaz ere ez. Alde bakoitzak sentitu behar du zerbait ona lortu duela: *au pair* -ak 90-120€ bitarteko poltsikorako dirua jasoko du astero, etxean 30-35 orduko laguntza emateagatik, baina ez da soldata bat. Bestalde, ingelesez egiten duen familia batekin biziko da, harremana eta hizkuntza lantzen. Oso ezaguna den sistema da ingelesa ikasteko eta hitz egiteko erraztasuna lantzeko. Familiak, berriz, gaztea hartuko du etxeko bat balitz bezala.

Bertakoekin hasiko zara?

Bai, bizi naizen inguruko familekin eta Euskal Herriko gazteekin. Kuriosoa da, baina hemengo jendea eskatzen da bereziki, beste herrialde batzuetakoek baino sentsibiltate gehiago dutelako familiarekiko eta keinu afektiboekiko. Gazteekin banan-banan hitz egingo dut etorri baino lehen, eta segimendua egingo diet gero. Hartuko duen familiari ez zaio komeni bi aste pasa ondoren alde egingo duen pertsona bat, eta gazteek eta gurasoek, berriz, konfiantza gehiago izango dute jakinda hemengoa naizela eta *au pair* izandakoa gainera.

ZERBITZUAK

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Saltzeko

■ Intxaurrak dauzkat saltzeko. Lau kilo 10 eurotan. Tf.: 943 83 44 98.
 ■ Egongelako gerezizko altzaria salduko nuke. Baita gaztetxoentzako literadun logelako altzariak ere. Tf.: 678 53 23 04 (Jaione).
 ■ Garaje itxia salgai Ibai Ondon. 21,70 metro koadro; 3 metroko altuera. 45.000 euro. Interesatuak deitu 627 63 87 76ra.
 ■ Garaje itxia salgai Mendibeltz futbol zelaiaren azpian. 20,67 metro joadro. Tf.: 646 28 99 07 edo 630 37 01 38.

Errentan

■ Etxea alokatzeko Orion. Hiru logela ditu. Altzariekin eta beharrezko tresne-

kin. 750 euro hilean.

Tf.: 678 90 61 66 (Arantxa).

■ Etxea alokatzeko Anibarko Portuan. Bi logela ditu eta urte osorako alokairuan eskaintzen da. Tf.: 615 75 76 48.

■ Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke errentan. Tf.: 662 31 13 20 eta 943 17 47 (Cristian).

Galdutakoak

■ Ekainaren 11n, arratsaldeko 19:30ak aldera, ikastolako parkean, ume kotoxea ahaztuta utzi genuen, Maclaren markakoa, grisa eta letra horiekin. Kotxe azpiko sarean, umearen jertse beltza eta grisa zegoen. Norbaitek jaso badu, eskertuko genioke bueltatzea. Tf.: 626 99 50 55.

Laneskaera

■ Neska euskalduna umeak zaintzeko prest, arratsalde. Eskarmentua daukat. Interesatuak deitu lasai. Tf.: 679 85 23 41.

■ Neska arduratsuak etxeak garbitu eta edadetuak zainduko lituzke.

Tf.: 600 74 56 86.

■ Neska euskalduna etxeak eta atariak garbitzeko prest. Tf.: 666 03 67 80.

■ Emakume etorkinak edadetuak zainduko lituzke. Etxean bertan biziko litzateke. Interesatuak deitu 663 11 75 79 (Rosa).

» ITSASOA

EGUNA ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
16 01:47 eta 14:18	07:56 eta 20:26	
17 02:46 eta 15:12	08:51 eta 21:22	
18 03:41 eta 16:03	09:44 eta 22:15	
19 04:34 eta 16:54	10:34 eta 23:08	
20 05:26 eta 17:44	11:24 eta	
21 06:17 eta 18:35	00:00 eta 12:14	
22 07:08 eta 19:26	00:51 eta 13:03	
23 07:59 eta 20:18	01:41 eta 13:54	
24 08:50 eta 21:11	02:32 eta 14:45	
25 09:43 eta 22:06	03:25 eta 15:38	
26 10:39 eta 23:04	04:19 eta 16:35	
27 11:41 eta	05:17 eta 17:37	
28 00:09 eta 12:47	06:19 eta 18:45	
29 01:18 eta 13:51	07:25 eta 19:53	
30 02:25 eta 14:49	08:27 eta 20:55	

» ZAINTZAKO BOTIKAK

IRAILA

■ 16an, Gallo.
 ■ 17an eta 18an, Azaldegi.
 ■ 19an, Larrañaga.
 ■ 20an, Mutiozabal.
 ■ 21ean, Barrenetxea.
 ■ 22an, Gallo.
 ■ 23an, Azaldegi.
 ■ 24an eta 25ean, Zulaika.
 ■ 26an, Mutiozabal.
 ■ 27an, Barrenetxea.
 ■ 28an, Gallo.
 ■ 29an, Larrañaga.
 ■ 30ean, Zulaika.
URRIA
 ■ 1etik 7ra, Lasa.

Azaldeg: Urdaneta kalea, 8.

943133183 Zarautz

Barrenetxea: Gipuzkoa, 17.

943832398 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12.

943832970 Zarautz

Larrañaga: S. Frantzisko, 16.

943133814 Zarautz

Lasa: Herriko plaza.

943830936 Orio

G. Artiano: Zigordia kalea, 17.

943134019 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo

Enea 943132983 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41

943133994 Zarautz

Elkarte gastronomikoa egiteko leku aproposa **SALGAI**

Inguru lasaia, familiarekin egoteko egokia eta **ERABILTZEKO PREST**

Kokapena: Zingira kanpinaren ondoan, Altzerri ballara bukaeran



Neurriak:

- Jantokia: 190m²
- Sukaldea: 90m²
- Arkupe estalla: 250m²
- Biltegia: 250m²
- Tellatupea: 270m²

Ikusteko aukerak:

- Irailaren 25a, Igandea, 10etatik 14etara
- urriaren 1a, larunbata, 10etatik 14etara eta 16etatik 18etara
- urriaren 8a, larunbata, 10etatik 14etara eta 16etatik 18etara

Informazio gehiago: 657 701 911 (Iñaki) 682 261 287 (Joxemari)



» AGENDA



Ostargikoak lanerako prest

Ostargi taldeak urrian hasiko du ikasturte berria, eta orain arteko bideari jarraituz, ehoziri-lan, kakorrazt- lan, oiha gaineo margolan, pachwork eta jantzigintza ikastaroak izango dira. Goizez 09:30etik 11:30era bitartean elkartuko dira eta arratsaldez, berriz, 15:00etatik 17:00etara eta 17:30etik 19:30era. Saioak kultur etxean izango dira eta norbaitek izena eman nahiko balu hara joan besterik ez du egin behar.

Orio

Ikastaroak

- Irailaren 19tik, tarot ikastaroa. Astelehenetan, 17:00etatik 19:00etara, Mandalara taldearen lokalean (Iturbide, 7).
- Irailaren 21ean, familia kontelazioak, 16:00etatik 20:00etara, Mandalara taldearen lokalean.
- Irailaren 23tik, Hata Yoga ikastaroa. Ostiraletan, 15:00etik 16:30era Mandalara taldearen lokalean.
- Irailaren 24an eta 25ean, energiari buruzko ikastaroa. Larunbatean 16:00etatik 21:30era, igandean 11:00etatik 18:30era Mandalara taldearen lokalean.
- Irailaren 28an hasita, sendabelarren ikastaroa, asteazkenetan, Mandalara taldearen lokalean.

Erakusketak

- Irailaren 30era arte Uxoia Zulaikaren *Herri paisaiak* margo erakusketa, 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara, kultur etxean.

Informatika

- Irailaren 20an, Skype ikastaroa, 11:00etatik 13:00etara, KZ gunean.
- Irailaren 22an, Paypal programari buruzko ikastaroa, 11:00etatik 13:00etara, KZ gunean.
- Irailaren 27an eta 28an, Meta postontzi eta gordailuari buruzko ikastaroa, 11:00etatik 13:00etara KZ gunean.
- Irailaren 19tik 30era, Internet eta e-administrazio ikastaroa, 09:00etatik 11:00etara, KZ gunean.
- Irailaren 21ean eta 26an, IT txartela ateratzeko azterketa, 11:00etan, KZ gunean.

Bilera

- Irailaren 23an, Orio Arraunketa Elkarteko bazkideen ezohiko batzarra, 19:00etan, kultur etxeko areto nagusian.

Azterketa

- Irailaren 20an eta 21ean, Ziklomotorren azterketa teknikoa. Aurrez txanda hartu, Udaltzaingoa (943 83 00 28). 09:00-13:15 Herriko plazan.

Hezkuntza

- Irailaren 19tik 30era, matrikula egiteko epea zabalik Maria maestra haurreskolan. 09:30etik 11:00etara eta 15:00etatik 16:00etara.
- Irailaren 19an, eskola orduz kanpoko psikomotrizitate saioen aurkezpena gurasoentzat. Izen ematea irailaren 27ra arte Ikastolan edo 659 461 359ra deituta. 19:00etan, kultur etxean.

Hitzaldiak

- Irailaren 28an, Agifes gaixo mentalen elkartaren saioa, Udal Gizarte Zerbitzuen eskutik. 18:30ean, kultur etxean.

Mendi irteera

- Irailaren 18an, GR 21 ibilbideko (Loiola-Xabier) lehen etapa, Talai Mendik antolatuta. Izena emateko azken eguna irailaren 16a, Uranga burdindegian, 12 euro. 08:00etan autobus geltokian.

Urkirolak

- Irailaren 17an eta 18an, taula eta kortxo txapelketa. Izen ematea surf taldeko lokalean. Txapelketa eta barbakoa 10 euro; txapelketa bakarrik 5 euro.

Aia

Podologia

- Irailaren 17an. Ordua hartzeko deitu 943 13 11 14ra.

Silo-Bolak

- Urriaren 11n, silo-bolen bilketa. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko elkarteko Igorrekin (66004 97 51) hitz egin edo Urkomera deitu (943 81 65 00).

2011-12 IKASTAROAK



EGUTEGIA

	1. IKASTAROA	2. IKASTAROA	3. IKASTAROA
HAURRAK	2011/09/26 - 2011/12/15	2011/01/09 - 2011/03/17	2011/03/19 - 2011/06/12
HELDUAK	2011/09/26 - 2011/12/23	2011/01/02 - 2011/03/23	2011/03/26 - 2011/06/22

IKASTAROA	EGUNAK	ORDUTEGIAK
IGERILEKUKO IKASTAROAK		
IGERIK HAURTZOAK	5	16:30-17:15 / 17:15-18:00
IGERIK HAURTZOAK	8	10:00-10:45 / 10:45-11:30
IGERIK HAURRAK	1-3	16:45-17:15 / 17:15-17:45 / 17:45-18:15
IGERIK HAURRAK	2-4	16:45-17:15 / 17:15-17:45 / 17:45-18:15
IGERIK GAZTEAK	2-4	18:15-19:00
IGERIKETA PERTS HAURRAK	1	18:15-19:00
IGERIKETA PERTS HAURRAK	2	18:15-19:00
IGERIKETA PERTS HAURRAK	3	18:15-19:00
IGERIKETA PERTS HAURRAK	5	18:00-18:45 / 18:45-19:30
IGERIKETA PERTS HAURRAK	6	9:15-10:00 / 11:30-12:15
IGERIK HELDUAK RASTAPENA	1-3	19:45-20:30
IGERIK HELDUAK HOBKUNTZ	1-3	20:30-21:30
IGERIK PERTS HELDUAK 45'	egunero	personalizatua
HAURREN IKASTAROAK		
CAPOEIRA HAURRAK 2 EGUN	4-5	16:30-19:30
GYM JAZZ+HIP HOP (4-8 urteak)	1-3	17:00-17:45
GYM JAZZ+HIP HOP (9-14 urteak)	1-3	17:45 - 18:30
JUDO	2-4	17:15-18:00 / 18:00-18:45 / 18:45-19:30
KARATE	5	17:00-17:45 / 17:45-18:30
HELDUEN IKASTAROAK		
ACQUAEROBIK	2-4	9:45-10:30 / 19:30-20:15
AEROBIK	2-3-5	7:00-8:00
AEROBIK	1-3-5	9:30-10:30
AEROBIK	2-4	18:00-19:00
AEROBIK	1-3	20:30-21:30
CAPOEIRA HELDUAK	4-5	19:30-20:30
DANTZA	5	20:00-21:30
FISIOTASUNA	1-2-4	16:45-19:30
FITNESS PERTS	egunero	personalizatua
MANTENIM GYM	2-4	10:30-11:15
GIRAR-TONIC	1-5	8:30-9:30
MANTENIM EDADETUAK	1-3-5	10:30-11:30
MULTIKIROLAK	2-4	19:00-20:00
PILATES	2-4	7:45-8:45 / 8:45-9:45 / 10:45-11:45 / 20:30-21:30
PILATES	1-3	19:45-20:45 / 20:45-21:45
PADEL	2-4	17:00-18:00 (-18) / 18:00-19:00 (+18)
SPINNING	4	7:15-8:00
SPINNING	2-4	9:30-10:15 / 14:45-15:30 / 20:15-21:00
SPINNING	1-3	18:30-19:15 / 19:30-20:15
SPINNING	1-3-5	14:45-15:30
YOGA	1-3	10:30-12:00
YOGA	2-4	16:30-17:00

EGUNAK

1. ASTELEHENA 2. ASTEARTEA 3. ASTEAZKENA 4. OSTEGUNA 5. OSTIRALA 6. LARUNBATA



INFO + 943 89 44 28

KARPEL
ZINBO BIKIDUGIA